


PROPOSAMENA

MUSAKOLAKO  
UDAL IGERILEKUA:  
BIZITZEKO ETA  
BIZIA JASOTZEKO  
ESPAZIO BERRIA,  
HERRITIK ETA  
HERRIARENTZAT



---

 Obren hasierarako aurreikuspena: 2023.ean

 Egilea: Sergio Serrano Flores  
(Arrasateko herritarra)

Nire aitonari,  
*in memoriam:*  
istorio honen hasiera

# AURKIBIDEA

## Orr.

1. Sarrera .....	4
2. Ur-ekintzen helburuak .....	5
3. Erabiltzaile perfilak .....	6
4. Igerileku berria: orubea eta planoak .....	7
5. Ordutegia .....	39
6. Fluxumetroa eta gehienezko edukiera .....	40
7. Espazioaren kudeaketaren garrantzia. Soroslea espazioaren kudeatzaile .....	42
8. Segurtasuna. Prebentzioaren garrantzia .....	45
9. Uraren kudeaketa: desinfekzioa, berotzea eta aurreztea .....	51
10. Pertsonal beharrak: langileria .....	61
11. Erabiltzailearentzako informazioa .....	70
12. Ur-azpiegituren mapa .....	70
13. Prezioen politika .....	75
14. Taberna vs. egongela, topagune gela .....	75
15. Amaiera .....	76

## 1. SARRERA

1977.ean, garapen industrial bortitzeko (1960-1975) etaparen ostean, Arrasatek kirol azpiegitura moderno bat inauguratu zuen. Lan gogorraren ostean, 1977.eko uztailearen 11an, bere ateak zabaltu zituen Musakolako Udal Kiroldegiak. 42 urte igaro ondoren, Gipuzkoako kiroldegirik zaharrena bilakatu da eta, gizartea garatuz joan den heinean, instalazioak zaharkituta geratu dira eta aluminosiak jota daude. Egoera honen aurrean, udal ordezkariak lanean jarri dira kirol azpiegitura hori berritzeko eta gaur egungo egoera sozialari egokitzeko. (iturriak: “[www.ingeba.org](http://www.ingeba.org)>lur16>16aguirre”; “[www.diariovasco.com](http://www.diariovasco.com)” > miércoles, 11 julio 2007, 12:52 ; > jueves, 2 mayo 2019, 14:04).

Gizartea garatu den bezala, kirolaren kontzeptua ere garatu egin da eta, gaur egun, osasunarekiko erlazio estua duela ezin uka daiteke. Beraz, gizarte postindustrial honetan, sedentarismoa eta elikadura ohitura ez osasuntsuak nabarmen igo diren garai hauetan, kirola ikuspuntu zabalago batetik ulertu behar da, ez soilik jarduera fisiko purua bezala, baizik eta mugimenduan oinarritutako jarduera, aisialdi denboran egiten dena, modu gidatuan edo modu librean, norberaren egoera fisikoan zein psikikoan onurak dituen, elkarrekin erlazionatzeko balio duena eta balio moralak jasotzeko eta transmititzeko ere balio duena. Zentzu honetan, ur-jarduerak ere igerian egitea baino askoz gehiago dira: ur-ingurunean burutzen diren jarduera fisiko ezberdinak osasunarekin erlazionaturik daudenak eta praktikatzen dituzten erabiltzaileengan ongizatea eta bizi kalitatea hobetzen dituztenak.

Honen harira, zentzua dauka Udal Kiroldegi batek, zerbitzu publiko bezala, Osakidetza bezalako zerbitzu publikoarekin erlazio estua izatea (kirol errejeta, etab.) gizarteko beste hainbat eragile sozialekin batera (jubilatuen etxeak, ikastetxeak, ludotekak, etab.).

Udal igerileku berriak eraikitzerako orduan 3 planteamendu jarri ahal dira mahai gainean, besterik ez:

### 1) Igerileku ez estaliak urte osorako

Euskal Herriko klima nolakoa den ikusita, Udalek aukera hau hautatzen dute azpiegitura udarako soilik denean.

### 2) Igerileku ez estaliak udan eta estaliak neguko denboraldian (edo urte osoan)

Formula misto honi abantaila bakarra ikusten diot: udako denboraldian, igerileku ez estalietan eguraldi onarekin erabiltzaileak senti dezakeen gozamena eta askatasuna. Gainontzekoan denak dira desabantailak:

- Eguraldi eskasa egiten duenean jendea ez doa eta mantenu gastuak zein pertsonal (sorosleak) gastuak berdinak dira.
- Neguko denboraldian (9 hilabete) kanpoko espazio erraldoi hori erabiltzeke geratzen da, “galduta”, eta igerileku estaliek soilik erabilgarri geratzen den espazioa murriztu egiten da zeharo. Gainera kanpoko igerileku ez estaliek mantenu minimo bat ere egin behar zaie.
- 2 botikin izatera behartzen du eta materialarekin gora eta behera ibiltzera.
- 2 azpiegitura ezberdin izateak mantenu gastuak biderkatu egiten ditu.
- Pertsonal gastua (sorosleak) ere biderkatu egiten da, are gehiago kanpoko igerileku ez estaliak forma irregularrekoak badira gehi formula arkitektoniko

ezberdinak (zubiak, txirristak, txanpinoi-txorrota) eransten bazaizkie. Modu honetan, itzalezko eremu (=begiradatik at geratzen diren eremuak) pila sortzen da, sorosleek egiten duten zaintza lana zailduz.

- Uretan larrialdi kasu baten aurrean, zailagoa da kasua kudeatzea sarbide puntuak ez daudelako argi.
- Aurreproiektuan ludikotasunerako planteatzen diren formulek (txorrotak eta txirristak) erabiltzaile perfil zehatz batzuei soilik (familiak ume txikiekin eta 10 urtetik beherako neska-mutikoak) erantzuten diete, gainontzeko erabiltzaile perfilak alde batera utziz.
- Aurreproiektuan planteatzen diren formulek espazio handia hipotekatzeko dute helburu bakarrerako eta espazio horiek ezin dezakete beste erabilerarik izan.

### 3) Igerileku estaliak urte osorako

Hortaz, nik planteatzen dudana formula datozen 40 urtetan zehar egongo diren beharrei erantzuten dieten ondo dimentsionatutako igerileku estaliak eraikitzean datza. Beti ere, igerileku bateko erabiltzaile perfil ezberdinen beharrei erantzuten saiatzen dena, Arrasateko gizarteak duen dinamika sozialaren ordutegiak eta egutegiak aintzat hartuta. Azpiegitura bakarra izango litzateke (horrek suposatzen duen diru aurrezpenarekin); konpaktua; espazioak ondo kudeatuta izango lituzkeena; segurua; erabiltzaile ezberdinen eta ikastaroko ikasleen arteko oreka logikoa mantentzen saiatzen dena; ikastaro eskaintza zabala izan dezakeena; igeriketa terapeutikoaren arloari bultzada handia ematen diona; gizarte inklusiboaren alde apustu egiten duena; irisgarritasuna bermatzen duena; zerbitzu profesionala eskaintzen duena; efizientzia energetikoa aintzat hartzen duena; uraren kudeaketa inteligentearen garrantzia azpimarratzen duena; espazio balioanizta izango duena, unean uneko beharrei erantzuten saiatzen dena; udako denboraldian berdegune handia eta zerbitzuz ondo hornitua izango duena; neguko denboraldian berdeguneari 2. erabilera emango diona herriarentzako parke publiko bilakatuz; herritar orori kirolaz gozatzeko gonbidapena eta aukera luzatzen diona estatus ekonomikoa oztipoa izan gabe; errespetuzko espazio “multiadina” izango dena; funtsean, bizitzeko eta bizia jasotzeko espazio berria izango dena.

## 2. UR-EKINTZEN HELBURUAK

Ur-ekintzak ez ditugu ulertu behar igerian egitearekin soilik. Gaur egun ur-ingurune artifizial (kiroldegi bateko igerilekua) batek bestelako ekintza fisikoak ahalbidetzen ditu. Baina laburbilduz, honako helburuak betetzen ditu:

- |  |   |  |
|--|---|--|
| a) Helburu hezitzailea<br>[kognitiboa, anatomiko-funtzionala, adierazpen eta estetikoa, komunikazioa eta erlazio sozialak, higienikoa, hedonista...] | { | - Haurtxoentzako ur-ekintzak.<br>- Lehen Hezkuntza (1.-4. mailak): Igeriketa Sustapen Kanpaina.<br>- DBH / Batxilergoa.<br>- Lanbide Heziketa, Unibertsitatea: TAFYD, Magisteritza (hezkuntza fisikoa)<br>- Heziketa berezia: ZIG institutua, Arizmendi. |
|--|---|--|

- b) Helburu erabilgarria  
[biziraupenerako helburua] { - Igeriketa eskola: haurtxoak, umeak, helduak
- d) Osasunerako, “forman”  
mantentzeko (fisikoa) eta  
“deskonektatzeko” (psikikoa)  
helburua { - Aquagym, aquaerobik, aquafitness, aquazunba...  
- Matrogym (haurdunentzako ur-ekintzak).  
- Igeriketa askea.  
- Buzeatzea.
- e) Kirol helburua edota  
lehiaketarako helburua { - Igeriketa eskola: umeak, helduak.  
- Igeriketa taldea.  
- Waterpolo.  
- Igeriketa sinkronizatua  
- Salbabide eta soroslaritza.  
- Piragüismoa, *stand up paddle*...  
- Urpekaritza.
- f) Helburu terapeutikoa { - Erditze ondorengo ur-ekintzak.  
- Elbarriak (fisikoak edota psikikoak).  
- Igeriketa terapeutikoa (lesioak, gaixotasunak)  
(Osakidetza).
- g) Olgetarako helburua { - Ur-ekintza familiarak (*Glup-glup!* Programa).  
- Umeentzako eta gaztetxoentzako ur-ekintzak  
(*Glup-glup!* Programa).  
- Helduentzako ur-ekintzak.

\* Oharra: ekintza batek helburu bat baino gehiago izan ditzake.

### 3. ERABILTZAILE PERFILAK

- Hezkuntza formaleko ikasleak.
- Familiak.
- Umeak, bakarka edo taldeka.
- Gazteak, bakarka edo taldeka.
- Igerilari bakartiak/taldetxoka.
- Bikoteak.
- Saunazaleak
- Ezjakinak.
- Jubilatua.
- Talde antolatuak.
- Ur-ekintzen ikasleak.
- Haurdunak, erditu ondorengo emakumeak
- Elbarriak.
- Lesionatuak, gaixoak.
- Eguzki-bainuzaleak.

#### **4. IGERILEKU BERRIA: ORUBEA ETA PLANOAK**

Ikusi hurrengo orrialdeak.


# ORUBEA

Hau izango litzateke igerileku berriak okupatuko lukeen orubea.





# IGERILEKUA, BERDEGUNE OSOA ETA SARBIDEAK



- |  |   |   |
|--|---|---|
| Bizikletentzako aparkalekua                                | Belargunetik igerilekura sartzeko oinentzako putzuak  | Zerria-saretoak   |
| Motorrentzako aparkalekua                                  | Umeentzako ziburuak (udako denboraldian igerilekuko berdegunearen barruan. Neguko denboraldian parke publikoa). | Berdegunearen mugak (neguko denboraldian parke publikoa).                         |
| Mantenuko ibilgailuarentzako aparkalekua                   | Komun publikoak   | Jolaserako eremua (palak, <i>frisbee</i> -a, <i>slackline</i> -a, indiaka, etab.) |
| Zamalanak egitera datozen banatzaileentzako aparkalekua    | Kioskoa   | Mahaiak eta eserlekuak (12). Itzaletan eta eguzkitan.                             |
| 2 autobusentzako aparkalekua + herribusarentzako geralekua | <i>Sun tube</i> itxurako argizuloak   | Zakarrontziak   |
| Anbulantziarentzako geralekua                              | Bideo-zaintzarako kamerak   |   |
| Iturria  |   |   |
| Larrialdietarako interfonoa                                |   |   |

## SARBIDEAK

Kiroldegi berria laukizuzen eta borobil forma geometrikoetan oinarrituta dago. Horrela, kiroldegi berriko sarrera gaur egungo biribilguneetik ikusgai planteatzen da, ez ezkutuan. Biribilgune kontzeptuari so eginez, lokomozio eredu ezberdinez kiroldegira hurbiltzen diren erabiltzaile eta hornitzaile ororen bilgune puntu bilakatzen da, bata besteari zirkulazioa oztopatu gabe.

Hala, oinezkoek espaloi zabala dute (2 m.) kiroldegira iristeko eta irteteko. Kiroldegiaz gain, 2 ikastetxe, kotxeen aparkalekua eta herribusaren geralekua daudenez, derrigorrezkoa bilakatzen da oinezkoentzako pasabidea egotea galtzada zeharkatzeko.

Bizikletaz, *segway*-z, patinetez edota motorrez hurbiltzen diren erabiltzaileentzat ere gertutasunezko aparkaleku zabala planteatzen da biribilgunean bertan.



Bizikletentzako eta motorrentzako aparkaleku ereduak

Autoz etortzen diren erabiltzaileek eskura dute 157 plazatako aparkalekua, Musakolako bizilagunekin konpartituta eta elbarrientzat 6 plaza erreserbatuz (ikus hurrengo orrialdetan moldaketa).

Herribus publikoan hurbiltzen diren erabiltzaileek biribilgune ondoko geralekuan daukate aukera bidaia amaitzeko edo hasteko.

Taldean datozen kolektiboek 2 autobus aparkaleku izango dituzte kiroldegiko sarreratik gertu. Kontutan izan behar dugu kiroldegiko jende-fluxuaz gain (2 kantxa, ISK...), 2 ikastetxeek duten ikasle joan-etorria.

Mantenuko langileek ere beraien ibilgailurako aparkalekua izango lukete kiroldegiko sarreratik hurbil.

Ezin ahaztu kiroldegiaren funtzionamendurako beharrezkoak diren hornitzaileei ere sarbidea erraztea, kiroldegiko joan-etorri fluxua oztopatu gabe.


Larrialdietarako zerbitzuek sarbide zuzena eta eskusiboa ere izan beharko lukete eta horrela islatzen da planoan.

Dena den, mugikortasun planean txertatzeko ideia izango litzateke herri barruan herritarren desplazamenduak errazteko, udal-zerbitzu ezberdinetara (liburutegia, antzerkia, azoka, kiroldegia...) hurbil daitezzen, kotxearen dependentzia hori apurtzea (horrek suposatzen duen espazio eskaerarekin gehi kutsadura, etab.) herribus publikoaren zerbitzua birplanteatuz. Hortaz, gaur egun dauden atez-ateko 2 linea zirkularrak birpentsatu beharko lirateke eta hauek 3. enbor linea azkar batean txertatu, enborreko 2 adar bailiran. Herribusaren geraleku sarea birplanteatuz eta bidai-

txartelaren prezioa ere herrikoi bilakatuz, herritarren mugikortasun ohituren aldaketa suposatuko luke, horrek izango lituzkeen onurekin.


Aurreko planoan ikusten den moduan, Gipuzkoa etorbideko sarbidea Mojategira joateko ezabatu egiten da, bertan umeentzako ziburuak eta igerilekuko berdegunera igotzeko pasabidea planteatzen baitira. Beraz, Mojategira sartzeko, gaur egun Arruena parke ondoko oinezkoentzako egurrezko zubia dagoen tokian hormigoizko pasabidea egitea planteatzen da, Mojategira doazen hornitzaileak, mantenuko langileak, ekintzen antolatzaileak eta larrialdietarako zerbitzuak ibilgailuekin Mojategira sar daitezzen (ikusitako hurrengo orrialdetan Mojategirako sarbide berria). Partidetako ikusleek ere Arruena parkean aparka dezakete kotxea eta bertako pasabidetik Mojategiko harmailetara joan daitezke.

# APARKALEKUAREN MOLDAKETA



Gaur egun

(158 plaza guztira + 5 elbarrien plaza)




Irudikatutako aparkalekua (moldaketa)

(157 plaza guztira + 6 elbarrien plaza + 2 autobusentzako aparkaleku)

## 2 autobusentzako aparkaleku




Herribusaren geralekuaz gain, 2 autobusentzako aparkaleku sortzen dira beharrezkoak baitira: partidetako jokalarien autobusentzat, institutuko autobusentzat, ISK-ko autobusentzat, etab. Zakarrontziak Elkano Kaleko beste albara pasatuko lirateke asfalto zati bat hartuz, baina kotxeentzako sarrera/irteera ez da galarazten



## Elbarrien 6 plaza


Orain 5 plaza



Gero 6 plaza



## Oinezkoentzako pasabide zabala eta babeslekua



## 157 plaza kotxeentzat (Musakolako bizilagunekin konpartituta)

□ Aurreko planoan, lauki zuzen batez irudikatzen dira sortutako 16 plaza berri; baita ere galdutako 13 plaza eta elbarrien plazen moldaketa islatzen dira. Guztira kotxeentzako plaza bakarra galtzen da.




2 plaza berri sortzen dira hemen



12 plaza berri sortzen dira hemen



Oinezkoentzako 70 zm.-ko pasabidea




Proposatutako sarbide berria Mojategira

# EREMUEN BANAKETA

Harreatik /harrera sarrera/irteera

87 m.



53 m.

Larrialdeterako zerbitzuentzako sarrera/irteera

Udako denboraldian bainujantziak da tozen erabilzailleentzako irteera berdegunera/ bainujantziak da tozen erabilzailleentzako sarrera berdegunetik aldageletara joateko

Udako denboraldian soroslearentzako atea

Udako denboraldian jantziak da tozen erabilzailleentzako irteera berdegunera/ jantziak da tozen erabilzailleentzako sarrera berdegunetik harrera joateko

Igerileku komunak, mixtoak + elbarriak

Erlaxazioko eremua

Sauna umela  
Mantenuko biltegia  
Sauna lehorra

SPA Gunea

Gym comer

Ikas roak/  
Jolaserako eremua/  
Bestelako ekintzak

Igerian egiteko eremua

Igerian egiteko eremua /  
ikas roak

Igerian egiteko eremua /  
ikas roak

Jolaserako eremua

0-5 urteko umeentzako eremua

Taldeentzako aldagela maskulinoa

Taldeentzako aldagela femeninoa

Aldagela orokorra maskulinoa

Aldagela orokorra femeninoa

Elbarrien aldagelak

Aldagela familiarra

Mantenuko biltegia

SOS-Begiraleen aldagela

Igerileku materialen biltegia

Korridorea

BOTIKINA

Korridorea

Korridorea

Korridorea

Korridorea

Korridorea


























Luzaketa egiteko txokoa

Igerilekuko espazioa "L" formadun 3 metroko zabalera duen korridore (lehor) baten inguruan planteatzen da. Korridore honetan sarbide/irteera guztiak kokatzen dira. Baita ilea apaintzeko txokoak ere: ile-lehorgailuak tutu malgu sistemarekin, ispiluak, apaltxo bat ispilu azpian eta entxufeak, aldagela bakoitzaren ate ondoan. Erabiltzaileen perfilen arabera, aldagela ezberdinak planteatzen dira:

- Aldagela familiarra: 10 dutxa, 8 kabina (3 pertsonentzako bakoitza) eta umeentzako orgak uzteko 2 txoko. 3 komun mixtoak, 2 konketa (ispilurik gabe) eta umeak aldatzeko erretilu bat.
- Elbarrientzako aldagela: 4 kabina. Kabina bakoitza elbarria eta bere laguntzailearentzat. Kabina batean 2 elbarri (autonomoak direnak) sartu ahal dira. Kabina bakoitzean, eserleku zabala, komun egokitua, konketa egokitua (ispilurik gabe) eta dutxa egokitua daude. Aldagela honen erabilera kontrolatzeko, harreran giltza eskatu behar da.
- Taldeentzako aldagela maskulinoa: 32 pertsonentzako espazio zabala 3 eserleku lerrotan banatuta. Eserleku azpian, oinetakoak uzteko apaltxoak eta eserleku gainean esekitokiak berokiak... zintzilikatze arropaz aldatu bitartean. Aldagelako sarreran euritako-ontzi amankomuna (euritakoak giltzapetuta uzteko aukerarekin). 10 dutxa, 3 komun + 2 paretako pixatoki (1 baxua) eta 2 konketa (ispilurik gabe).
- Taldeentzako aldagela femeninoa: 32 pertsonentzako espazio zabala 3 eserleku lerrotan banatuta. Eserleku azpian, oinetakoak uzteko apaltxoak eta eserleku gainean esekitokiak berokiak ... zintzilikatze arropaz aldatu bitartean. Aldagelako sarreran euritako-ontzi amankomuna. 10 dutxa, 4 komun eta 2 konketa (ispilurik gabe).
- Aldagela orokorra maskulinoa: 31 pertsonentzako espazio zabala 3 eserleku lerrotan banatuta. Eserleku azpian, oinetakoak uzteko apaltxoak eta eserleku gainean esekitokiak berokiak, euritakoak... zintzilikatze arropaz aldatu bitartean. Intimitatea zaintzea nahi duen pertsonarentzat arropaz aldatzeko kabina bat eta dutxarako beste bat. 9 dutxa (guztira), 3 komun + 2 paretako pixatoki eta 2 konketa (ispilurik gabe).
- Aldagela orokorra femeninoa: 31 pertsonentzako espazio zabala 3 eserleku lerrotan banatuta. Eserleku azpian, oinetakoak uzteko apaltxoak eta eserleku gainean esekitokiak berokiak, euritakoak... zintzilikatze arropaz aldatu bitartean. Intimitatea zaintzea nahi duen pertsonarentzat arropaz aldatzeko kabina bat eta dutxarako beste bat. 9 dutxa (guztira), 4 komun eta 2 konketa (ispilurik gabe).


Aldagelak eta igerilekuen artean beste korridore (umel) bat planteatzen da non takilak kokatuko diren. Espazio hau bideoz zainduta egon daiteke lapurreten gaian laguntzeko. Korridore umel honetan korridore lehorrean baino ate gutxiago egongo dira igerileku eremura sartzeko, hots, 2 aldagelako ate bat. Horrela igerilekuko eremuan espazioa irabazten da eta jendearen sarrera/irteera fluxua kontrolatzea errazten zaio sorosleari.

### Sinboloen esanahia

-  Soroslearen dorrea eta bere kokapena (zaintza estatikoa).
-  Dutzak (beroa/hotza mekanismo erregulatuarekin eta 2 alturatan kokaturiko botoi aktibatzaileak).
-  Umeen orgak uzteko txokoak.
-  Umeak aldatzeko erretiluak (paretaren aurka tolestatzen direnak).
-  Elbarrien kabina/komuna.  Elbarrien igogailua (giltzaz). 2 metroko luzerako kaxa esku-ohea garraiatu ahal izateko.
-  Intimitatea zaintzea nahi duen pertsonarentzako kabina (arropaz aldatzeko/dutxa).
-  Eserlekua (igerilekuan/aldagelan).
-  Igerilekutik/igerilekura irteteko/sartzeko eskailera.
-  0-5 urteko umeentzako eremuan ur-txorrota ludikoa.
-  0-5 urteko umeentzako eremuan boladun putzua.
-  0-5 urteko umeentzako eremuan ur-txorroten korridorea.
-  Jauziak egiteko plataformak kokatzeko zuloak.
-  Txirrista finkoa. 0-5 urteko umeentzako eremuan, elementu infantilez apaindutakoa.
-  Ura edateko iturria. Igerileku eremu osoa ur-hartunez hornituta egongo da garbiketa lana errazteko.
-  Luzaketak egiteko txokoan, holtz tolesgarria, intimitatea zaintzeko.
-  Spa gunean temperatura kontrastea egiteko ur-putzu hotza.
-  Spa gunean zisnearen lepo itxurako ur-txorrota.
-  Spa gunean ur-jauzi itxurako ur-txorrota.
-  Erlaxaziorako eremuan etzaulkiak (12).
-  Atea.  Altzaririk gabeko atea, holtz itxurakoa.
-  Igerilekuan espazioak banatzeko kortxo-ilara.
-  Trenkada banatzailea.
-  Prebentzio eta informazio kartelak



# EREMUEN ZERBITZUAK



WELLNESS eremuko  
gehienezko  
edukierak

## Sinboloen esanahia

- Ilea apaintzeko txokoa:  
Ile-lehorgailua tutu malgu sistemarekin, ispilua, apaltxoak objektu pertsonalak uzteko (orrazia, kremak...) eta entxufeak.
- Zakarrontzia (errefuxa).
- Umeen orgak uzteko txokoak.
- Umeak aldatzeko erretiluak (paretaren aurka tolestutzen direnak).
- Konketa (ispilurik gabe).
- Komuna /paretako pixatokia.
- Eserlekuak.
- Takilak.
- Ura edateko iturria. Hondartza garbitzeko ur-hartunez hornituta egongo da.
- Luzaketak egiteko txokoan, holtz tolesgarria, intimitatea zaintzeko.
- Dutzak.
- Larrialdietarako interfonoa.
- Euritako-ontzi amankomuna

Orubearen planoan ikusten den moduan, igerilekuaren orientazioa Hego-Ekialdekoa da, ahalik eta argi natural gehiena aprobetxatze aldera. Gainera sabaian *Sun tube* itxurako argizuloak daude homogeneouski banatuta. Ipar-mendebaldeko orientazioan aldagela ezberdinak kokatzen dira. Igerilekuko putzuak diseinatzerakoan oso kontutan izan da aldagela bakoitza non kokatuko den. Horrela erabiltzaile perfil ezberdinen beharrei erantzunez, gertutasuna bilatu da. Halaber, jolaserako eremua, beti ere zaratsua goa dena, erlaxaziorako eremutik (saunak eta *spa* gunea) ahalik eta urrutien kokatu da.

0-5 urteko umei zuzendutako gunean, 2 metroko altuerarainoko ur-txorroten korridorea dagoenez, soroslearen ikuspegia oztopa ez dezan bilatu da. Gainera ume horiek arduradun baten zaintzapean egon behar dutenez, soroslearen dorretik urrutien kokatu den putzua da eta soroslearen begi-bistako lehen planoan igerileku ertaina eta igerileku handiko jolas eremuak kokatu dira.

Soroslearen zaintzarako dorrea toki estrategikoan kokatu da, igerilekuko eremu osoa gehi sarrera/irteerako ate guztiak kontrolpean izan ditzan. Gutxi gora behera igerilekuko eremuko erdigunean egonda, edozein ezbeharren aurrean, edozein puntutan dela, erantzuteko denbora berdina izango da. Horregatik botikina ere erdigunean kokatzen da. Garrantzitsua da iparreko aldean kokatu dela soroslearen dorrea, hegoaldeko kristalezko leiho ondoan kokatuko balitz, leiho sendoak eguzkiak jotzen duenean lupa efektua egingo bailuke eta ezin izango luke luze iraun dorrean sorosleak. Eremu ludikoa azpiegitura ezberdinez hornitzen den eta jende multzo handiez betetzen den momentutan zaintza eraginkorra izan dadin, modu estrategikoan diseinatu dira azpiegitura ezberdinak eta ilarak kudeatzeko norabideak.

Sorosleen eta begiraleen aldagela, igerilekuko materialaren biltegia eta mantenuko biltegia elkarren ondoan diseinatu dira erlasionaturik baitaude. Gainera igerilekuko materialaren biltegia begiraleek eskolak emango dituzten puntuetatik hurbil dago eta hondartzan ez dago oztoporik orga ezberdinak garraiatzeko. Mantenuko biltegiko materiala ateratzerakoan/sartzerakoan erabiltzaileei ez zaie trabarik egiten.

Hondartzen zabalerari dagokionez, irizpide teknikoak kontutan hartu dira jende fluxua errazteko eta tapoi efekturik gerta ez dadin. Halaber 2 korridore (lehorra eta umela) diseinatu dira, gehien bat udako denboraldian, jende fluxu ezberdinak kudeatu ahal izateko, igerileku eremuan uraz disfrutatzen ari den jende multzoa oztopatu gabe.

Hurrengo orrialdetako planoetan islatzen den moduan, segurtasunari garrantzi handia eman zaio azpiegitura honen diseinuan. Gauzak horrela, soroslearentzako korridore sanitarioak diseinatu dira, zalantzarik gabe, sorosleari lana erraztuko diotenak.

Komunak leku amankomun batean kokatu dira, igerileku eta *spa* gunearen artean. Dena den, igerileku txikian eta ertainan dauden erabiltzaileek aukera dute gertuago geratzen zaizkien aldageletako komunak erabiltzeko.


*Spa* gunea, saunak eta erlaxaziorako eremua ibaira eta Arruena parkera begira diseinatu dira erlaxazioa eta naturaren arteko lotura bilatuz. Argi naturala oso aberatsa izango denez, elektrizitatea aurreztuko da eta giro polita sortuko du argitasunak.

Eremu ezberdinen banaketa 13mm.-ko erretxina fenolikozko piezekin egindakoak, zuri kolorekoak. Zorua ez-labainkorra.

Paretak alikatatuak (garbiketa errazteko eta mantenu gutxiagokoak, margotuta baino), krema kolorekoa, zerrenda apaingarri urdin ilun eta urdin argi kolorekoa.




# EREMUEN NEURRIAK



\* **Oharra:** hau krokis bat besterik ez da. Saiatu naiz eskalan egiten, baina *Word* programa ez da zehatza planoak egiteko. Irudikapena egiteko balio du soilik.

Ohartu zaitetz plano hau dela ondo irudikatuta dagoen bakarra. Gainontzeko planoek ez dute islatzen igerileku ertaina eta txikiaren alboetako korridoreak 5 metroko zabaleraoak direnik. Gainontzekoek 3 m. eta 7 m.-ko zabalera ezberdinak irudikatzen dituzte, baina ez da zuzena. Zuzena 5 m.-ko zabalerao korridoreak albo bietan egotea da.

# HARMAILAK ETA EGONGELA



**SABAIKO BERDEGUNEAREN (SOLARIUM-a, belar naturalekoa) ANTOLAKETA**



## Goiko eremua

*Solarium*-a 3 eremutan banatuta dago: eguzkiko eremua, itzalezko eremua eta aisialdirako eremua. Hirurak konektatzeko korridore zentral bat planteatzen da. Komun mixtoak eta elbarrientzakoa ere badaude, igerilekuko solairukoaren parekoa. *Solarium*-era eta egongelara igotzeko pasabidea planteatzen da, arau teknikoek markatzen duten arrapalaren portzentajearekin jendearentzat egokia izan dadin. Honetaz gain, elbarrientzat igogailua planteatzen da *spa* eremutik. Horrela zerbitzu guztietara joateko eskubidea bermatzen zaie. *Solarium*-eko babesaren perimetrala 2 metroko altuera duen altzairu herdoilgaitzeko hesi bat izango da.

Eguzkiko eremuan ez dago ezer berezirik, zakarrontziak soilik. Itzalezko eremuan, aldiz, banbuzko itzalkin erraldoiak daude homogeneouski banatuta eta zakarrontziak. 2 gune hauen erdi-erdian zutabe bakarreko 4 dutxa planteatzen dira norbaitek freskatzeko nahi izanez gero.

Aisialdirako eremuan bibliopisizina zerbitzurako txokoa dago, pasabidetik gertu, zerbitzua ikusia izan dadin. Bertan aldizkariak, komikiak eta liburuak hartu ahal dira maileguan norbere toallako(etzaulkiko) espazio indibidualean disfrutatzeko, kiroldegiko txartela, NAN-a edo liburutegiko txartela fidantza bezala utziz. Halaber, bibliopisizina eremuan 4 mahai eta aulkiak itzalkinaren azpian eskaintzen dira mahai-jolasetan senide eta lagunartean jolasteko. Igerileku bateko espazio honetara egokitutako 2 kirol bultzatzen dira horietarako espazioa eskainiz: *badminton*-a eta *ping-pong*-a.

Pasabidetik gertu edateko iturria kokatzen da eta *solarium*-eko puntu estrategikoetan larrialdietarako interfonoak daude, soroslearen haririk gabeko telefonoarekin konektatuta. Honekin batera, 4 puntu estrategikoetan, 5 metroko altuerako zutoinetan bideo-zaintzarako 4 kamera kokatzen dira. Berdegunearen sarreran (eta beheko solairuan ere, oinentzako ur-putzuen ondoan) prebentzio kartelak kokatzen dira non igerilekuaz eta eguzkiaz modu seguruan disfrutatzeko aholkuak ematen diren.

*Solarium*-era sartzeko eta bertatik irteteko pasabidea dago, beheko solairuko egongelara joateko pasabidearekin lotuta.

## Beheko eremua

Goiko eremua bezala, 3 eremutan banatuta dago: itzalezko eremua, eguzkiko eremua eta jolaserakoa.

## Ibaiaren beste aldeko eremua

Lan honen hasierako planoetan islatzen den moduan mahaiez eta eserlekuez hornituta dago, komun publikoa, zakarrontziak, iturria eta aisialdirako eremua ere badaude.

Aipatutako 3 eremuak (goikoa, behekoa eta ibaiaren beste aldekoa) neguko denboraldian parke publiko bilakatzen dira herritar ororen gozamenarako.

## *Solarium*-eko sinboloen esanahia



Banbuzko itzalkin erraldoiak.



Ziburuak



Zakarrontziak (errefuxa, organikoa, plastikoa eta papera). Garbiketa errazekoak. Estalkiarekin.



Zutabe bakarreko 4 dutxa.



Ura edateko iturria. Zelaia ureztatze ur-hartunez hornituta egongo da (lurperatuta).



Larrialdietarako interfonoak.



Bideo-zaintzarako kamerak.



*Sun tube* itxurako argizuloak, igerilekuan argi naturala aprobetxatzeko. Babestuta agertzen dira inor gainera igo ez dadin eta istripuak ekiditeko.



Prebentzio kartelak




Zerria-saretoak




Oinentzako ur-putzuak

# BOTIKINAREN ANTOLAKETA ETA NEURRIAK



# SOROSLEEN ETA BEGIRALEEN ALDAGELAREN ANTOLAKETA ETA NEURRIAK







16 sorosle-begiraleentzako aldagela



Takila modulu bakoitzeko neurriak (2 takila itsatsita): 50X80X180 zm.

1,6 X 2 m.-ko espazioan soka ezberdinak toailak, bainujantziak eta neoprenoak zintzilikatzeko


-  2 konketa ispiluarekin eta ile-lehorgailuarekin eta entxufea.
-  Berokientzako esekitokia
-  Aterki-ontzia
-  Zakarrontzia

Eremu ezberdinen banaketa 13mm.-ko erretxina fenolikozko piezekin egindakoak, zuri kolorekoak. Zorua ez-labainkorra. Paretak alikatatuak (garbiketa errazteko eta mantenu gutxiagokoak, margotuta baino), krema kolorekoa, zerrenda apaingarri gorri ilun eta gorri argi kolorekoa.






## MANTENUKO BILTEGIAREN ANTOLAKETA



Zorua ez-labainkorra.  
Paretak alikatatuak (garbiketa errazteko eta mantenu gutxiagokoak, margotuta baino), krema kolorekoa, zerrenda apaingarri urdin ilun eta urdin argi kolorekoa.



## IGERILEKUKO MATERIALAREN BILTEGIAREN ANTOLAKETA



Materiala gurgildun orgetan gordetzen da. Koltxonetak armairu berezian. Gainontzeko materiala PVC-zko *palet*-etan eta paretan zintzilikatutako zulodun plastikozko apaletan.

## ALDAGELAK: TALDEENTZAKOAK, FAMILIARRA ETA ELBARRIAK

Eremu ezberdinen banaketa 13mm.-ko erretxina fenolikozko piezekin egindakoak, zuri kolorekoak. Zorua ez-labainkorra.  
Paretak alikatatuak (garbiketa errazteko eta mantenu gutxiagokoak, margotuta baino), krema kolorekoa, zerrenda apaingarri hori ilun eta hori argi kolorekoa.



## OROKORRAK

Eremu ezberdinen banaketa 13mm.-ko erretxina fenolikozko piezekin egindakoak, zuri kolorekoak. Zorua ez-labainkorra.  
Paretak alikatatuak (garbiketa errazteko eta mantenu gutxiagokoak, margotuta baino), krema kolorekoa, zerrenda apaingarri laranja ilun eta laranja argi kolorekoa.



## MANTENUKO BILTEGIA



Kortxo-ilarentzako orga



Eskailera eramangarria



“Limpiafondos” txikia



“Limpiafondos” handia



25 m.-ko luzagarria



Elbarrien aulki elektrikoa

## IGERILEKUKO MATERIALAREN BILTEGIA



Materialarentzako orga



Koltxonetak



Alfonbra



Boleiboleko sarea



Enborra



Kanastak



Kayak-a  
(puzgarria)



Motorrak (eredu ezberdinak, puzgarriak eta plastazotezkoak)



TB/soinu ekiparentzako orga eredu ezberdinak




Bozgorailu ereduak (pantailarekin/gabe), bateriarekin eta trolley itxurakoak



Traspaleta



Bestelako materiala



Modelo 100x40x195 cm.



Koltxonetak



25 m.-ko luzagarria



PVC-zko paleta



Txirrista erraldoia (puzgarria, 6 X 3 X 3 m.), eredu bat



Puzgailu elektrikoa



Uretako erruloak eta pilota erraldoiak




Jende-fluxua eta gehienezko edukiera kontrolatzeko sistemak (5 minututan muntatu/desmuntatu ahal direnak)



2 oztopo linea eredu ezbedinak (puzgarriak). Argazkian alboetara asegaratuta agertzen dira soka bitartez. Sokak igerileku hondora eraman daitezke lastre batzuekin edo ainguratze sistemarekin, oztopo linearen alboak ez okupatzeko.



**ANTOLATUTAKO EKINTZA EZBERDINETARAKO ESPAZIOAK: NEGUKO DENBORALDIA (goizez/arratsaldez, astean zehar; adibidea) (larunbat goiza)**



**Sinbolo berrien esanahia**

- Itxitura eramangarria (PVC) (1,5 m-ko altuera)
- Itxitura eramangarria (PVC) (1,5 m-ko altuera)
- Eskailera eramangarria
- Eskailera eramangarria
- Txirristen ilararen kudeaketarako zintak
- Txirristen ilararen kudeaketarako zintak
- Igerileku txikiko kortxo-ilarak jasotzeko orgatxoa
- Igerileku txikiko kortxo-ilarak jasotzeko orgatxoa
- 2 kale olinpikoak estaltzeko estalkia
- 2 kale olinpikoak estaltzeko estalkia
- Gym corner-era joateko pasabidea
- Gym corner-era joateko pasabidea
- Ikastaroak adierazteko konoa.
- Igeriketa jarraia adierazteko konoa
- Igeriketa ez-jarraia adierazteko konoa
- Bainu librea/jolasa adierazteko konoa
- Kale hauetan material gehigarria (hegatsak, palak...) erabil daiteke.

Gym corner-a (errehabilitazio/fitness ariketak egiteko gunea)



Neguko denboraldian (urtean 9 hilabetez) igerileku handia 50 X 25 m.-ko putzua da soilik. Putzu gehigarria (50 X 5 m.-koa) udarako soilik zabalduko da. Hortaz, urez beteta mantenduko da paretak ez pitzatzeko eta estalita estalki termikoaz. Inor putzu horretara jausi ez dadin, PVC-zko itxitura eramangarri batez inguraturik egongo da putzu gehigarri hori.

Igerilekuko hondartzatik *Gym corner*-era zeharkatu ahal izateko, pasabide metalikoa planteatzen da, udako denboraldian kenduko zena. Pasabide honek ere aukera ematen dio sorosleari 2 putzuen arteko korridore sanitariora iristeko azkar batean (ikus aurrerago 8. puntua).

Putzu handiko alde batean antolatutako ekintzetarako espazioa egokitu da (kono gorria): ikastaro ezberdinak, igeriketa taldearen entrenamenduak, etab. Halaber, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 16:00etara Osakidetzarekin egindako lan akordioaren bitartez, errehabilitazio eta fisioterapia saioak eskaintzen dira Osakidetzako paziente/erabiltzaileei fisioterapeuta baten gidaritzapean. Horretarako 4 kale erreserbatzen dira eta *gym corner* zerbitzua. Espazio hau, 16:00etatik 21:30etara, astelehenetik ostiralera bestelako ekintzetarako izango da, hala nola, waterpolo, piragüismoa, urpekaritza, *stand up paddle*, bainu librea-jolasa (kono orlegia), kale hezitzaileen ekintzak, etab. Espazio honetan txirrista finko bat (udan kendu ahalko dena) egongo da putzuak daukan sakontasunera egokituta eta 6 urtetik gorako umeek zein helduek jauzi egin ahalko dute bertatik. Iara kudeatzeko zutoinei lotutako zinten bitartez egingo da. "Itxaron hemen, mesedez, txirrista libre egon arte" kartela egongo da txandak segurtasunez kudeatzeko. Arratsaldetan *gym corner*-eko zerbitzua ere eskainiko da erabiltzaile arruntentzat.

Putzu handiko beste aldean 10 kale utziko zaizkie erabiltzaile arruntei. 2 kolorez ezberdindu dira erabilerak: horiak igeriketa ez-jarraia egiteko eta urdinak igeriketa jarraia egiteko. Honetaz gain, 2 kale urdinetan, kono laranja gehigarriaz adierazitako 2 kaleetan material gehigarria erabili ahal izango da, palak eta hegatsak esaterako. Igerian egiteko sistema errepidean zirkulatzeko erabiltzen den berdina izango da, hots, eskumatik joan eta ezkerretik bueltatu. Bizkar estiloan igerian dabiltzan igerilarientzat sabaian 2 marra gorri margotuko dira igerilekuko muturrak non dauden adierazteko eta beste 2 marra laranja 5 m.-ko distantzian txiri-buelta egin ahal izateko.

Putzu ertaina 3 eremutan banatu ahal da: 2 eremu antolatutako ekintzetarako izan daitezke eta 3.a, bainu liberako zein jolaserako. Azken eremu honetan txirrista finko bat egongo da, putzuak daukan sakontasunera egokituta eta 6-14 urte bitarteko neska-mutikoei jauzi egin ahalko dute bertatik. Iara kudeatzeko zutoinei lotutako zinten bitartez egingo da. "Itxaron hemen, mesedez, txirrista libre egon arte" kartela egongo da txandak segurtasunez kudeatzeko.

Igerileku txikia 0-5 urte bitarteko umei zuzendutako espazioa da. Beti ere arduradun batekin egon beharko dute umeek. 8 X 8 metroko putzua izango dute jolas liberako. Putzuaren izkina batean ur-txorrota ludikoa kokatuko da umeen gozamenarako. 8 X 1 metroko espazioan 2 erakargarritasun finko eskainiko zaizkie: alde batetik elementu infantilez apaindutako txirrista bat (ilara kudeatzeko zintekin, baita) eta bestetik boladun putzua. Honen alboan, metro beteko tartearekin, 2 X 8 metroko ur-txorroten korridorea egongo da 0-5 urteko umeen erabilerarako soilik. 2 metroko altuerarainoko ur-txorrotak jaurtiko dira zorutik.

3 putzuen inguruko hondartzan pvc-zko eserlekuak egongo dira, dutxak (estrategikoki kokatuta), zakarrontziak eta umeak aldatzeko erretiluak.


Igerilekuko hondartzaren izkina batean luzaketak egiteko txokoa egokitu da holtz tolesgarriarekin (erabiltzaileen intimitatea zaintzeko asmoz). Honen alboan edateko iturria egokitu da.

Komunen eremua mistoa izango da, 2 komun gizonezkoentzat eta 2 komun emakumezkoentzat gehi elbarrien komuna.

*Wellness* eremuan sauna umela, sauna lehorra, *spa* gunea (>*Salus Per Aquam*-en akronimoa, hots, osasuna uraren bitartez, hidroterapia// >Belgikako Spa hiria, erromatar garaiko bainu eremuengatik ezaguna. Spa hitza ingelerara pasatu zen eta hortik beste hizkuntzatarara hedatu zen: burbuilen putzua, zisnearen lepo itxurako ur-txorrota, ur-jauzi itxurako ur-txorrota eta temperatura kontrastea egiteko putzua), dutxak, zakarrontzia, eserlekuak eta etzaulkiak (12) egongo dira. Honetaz gain, ura edateko iturria eta larrialdietarako interfonoa, soroslearen haririk gabeko telefonoarekin konektatuta.

Soroslea toki estrategikoan kokaturik egongo da dorre batean, bertatik espazio osoa kontrolpean izan dezan. Dorre azpian apal bat egokituta *pull-boy*-ak, taulak, gerrikoak erabiltzaileen eskura izan daitezten eta galdutako objektuen kaxa uzteko.


**ANTOLATUTAKO EKINTZA EZBERDINETARAKO ESPAZIOAK: NEGUKO DENBORALDIA (asteburua: larunbat arratsaldea eta igandea)**



Asteburuetan, astean zeharreko dinamikarekin alderatuta, aldatzen den bakarra bainu librerako-jolaserako eskaintzen den espazioa da. *Gym corner*-eko zerbitzua ere eskaintzen da. Ostiral arratsaldeko sorosleak kortxo-ilarak batzen ditu eta eskailera eramangarria kokatzen du bainu libreko/jolaserako eremuan.

# ANTOLATUTAKO EKINTZA EZBERDINETARAKO ESPAZIOAK: NEGUKO DENBORALDIA (hilean behin, igandea)

- Goiza: goiz familiarra (8 urtera arte)
- Arratsaldea: *Glup-glup!* programa (9-16 urtera arte) [ ikusi erantsitako artxiboa ]



Ekintza guztien ilarak kudeatzeko zintadun zutabeen bitartez egingo da. Txirristen eskailera igotzeko tokian honako kartela egongo da: “Itxaron hemen, mesedez, txirrista libre egon arte”, txandak segurtasunez kudeatzeko. Honetaz gain, ur-parke hau muntatu ahal izateko 2 eskailera eramangarri gehigarriak (normalean egoten diren 2az gain) jarriko dira, oztopo lerroetako erabiltzaileak putzutik irten daitezkeen (→). *Gym corner*-eko zerbitzua eskaintzen jarraitzen da, makinak kortxo-ilara laukizuzen batez inguratuz baitaude. Erabiltzaile arruntek beraien espazioa izaten jarraitzen dute. Ur-parkearen funtzionamendurako begiraleen eta mantenuko langileen laguntza eskatzen da.



Igerileku ertainan eskaintzen den erakargarritasun hau flotagarritasunak eskaintzen duen oreka-desoreka jolasean datza. Argazkietan ikusten denez bikoteka disfrutatzen aukera ematen du sistema honek. Pilota erraldoiaren kasuan, segurtasunagatik, komeni da jolaserako denbora kontrolatzea pilota barruan dauden erabiltzaileak zorabia ez daitezen eta oxigeno falta igarri ez dezaten.



Igerileku ertainan eskaintzen den erakargarritasun hau flotagarritasunak eskaintzen duen sentazioan datza. Forma eta kolore ezberdinetako koltxonetak daude, flotagarritasun gehiagokoak eta gutxiagokoak.



Igerileku handian eskaintzen den erakargarritasun hau flotagarritasunak eskaintzen duen sentazioan gehi arraunek ematen duten abiadura sentazioan datza. Kayak hauek, handiak direnez, bikoteka jolasteko aukera ematen dute (lagunak, guraso-ume, 2 guraso...). Jolas hau beste batzuekin konbina daiteke; adibidez, saskibaloian aritu daiteke arraun egitearekin batera, lasterketa planteatu daiteke, oztoko zirkuitu bat, etab.



2 X 17 m.-ko oztoko linea estandarra. Alboetan 2,75 m.-ko segurtasun putzua uzten da norbait jausten denerako. 1 m.-ko korridorea jar daiteke jende-fluxua irteerara bideratzeko.



2 Oztoko linea hauek moduluka antolatuta daude. Honek esan nahi du modulu bakoitza independentea dela eta bata besteari belkro potente baten sistemaz lotuta doazela. Honek ahalbidetzen du edozein forma ematea oztoko lineari: linea zuzena, "L" forma, "U" forma, etab. daukagun espazioari egokitzuz. Halaber, saio batetik bestera moduluak alda daitezke, ur-parkea berrituz. Puzgarriak direnez, modu errazean kendu eta jarri ahalko dira igerileku balioanitz batean, espazio finkorik hipotekatu gabe. Segurtasunari dagokionean, moduluak soka bitartez lotu ahal dira igerileku kanpoko zutabe batzuetara, adibidez, baina praktikoagoa da lasta bitartez igerileku hondora lotzea edo, hobeto, igerilekuko hondora dauden ainguraketa sistemei lotuta egotea. Modulu ezberdinak daudenez eta igerilekurako zein itsasorako pentsatuta daudenez, oso kontutan izan behar dugu gure igerilekuko sakontasuna modulu ezberdinak erosterakoan. Argazkietan agertzen diren moduluak, igerileku baterako egokiak dira. Ilarak kudeatzeko zintadun zutabeen bitartez egingo da. Oztoko linearen kasuan, bateriadun semaforo eramangarriaz osatzen da kudeaketa, 30 segundoko tartea emanez (adibidez) erabiltzaile bat eta bestearen artean. Ur-azpiegitura hauek egokiak dira umeentzat zein helduentzat. Mantenu lanei dagokienez, mantenu eskasa eskatzen dute (garbitu, lehortu, partxeak jarri zulatzen badira...).



0-5urte bitarteko eremuan honako jolasak planteatzen dira:

- Ur-txorroten korridorea.



- Boladun putzua.



- Txirrista: elementu apaingarri infantilekin.



- Ur-txorrota ludikoa



- Animali ezberdinen arrantzan egitea



- Uretako puzzlea



- Uretako eraikuntzak




- Uretako motorrak




# ANTOLATUTAKO EKINTZA EZBERDINETARAKO ESPAZIOAK: NEGUKO DENBORALDIA (hilean behin, igandea)

- Goiza: goiz familiarra (8 urtera arte)
- Arratsaldea: *Glup-glup!* programa (9-16 urtera arte) [ ikusi erantsitako artxiboa ]










BESTE AUKERA BAT



# ANTOLATUTAKO EKINTZA EZBERDINETARAKO ESPAZIOAK: UDAKO DENBORALDIA (goizez, astean zehar; adibidea)



## Sinbolo berrien esanahia

-  Korridore umela sortzeko PVC-zko itxitura eramangarria. Igerilekuko eskaileretatik 1,5 m-ko distantziara.
-  Korridore umeetik bainatzeko eremura sartzeko atea, berdegunera ez doazen erabiltzaileei zerbitzu emateko eta sorosleentzat sarrera/irteera izan daitezkeen (korridore sanitarioak). Korridore aldeko atean kartela: "Dutxatu al zara? / ¿Te has duchado?".
-  Ur-txorrota. Ez du oztopatzen sorosle estatikoaren (dorrekoa) ikuspegia. Ur-emari ezberdinak.
-  Korridore lehorreko sarrera-irteera berdegunera/harrerara
-  Korridore umeleko sarrera-irteera berdegunera/aldageletara
-  Berdegunetik igerilekura sartzeko oinentzako putzuak
-  2. soroslearen (dinamiko) kokapen estrategikoa  eta bere ibilbidea sorosle estatikoa botikinerara doanean.
-  Sorosleentzako ate eksklusiboa



Txirrista erraldoia (puzgarria, 6 X 3 X 3 m.), eredu bat. Igotzeko eskailera, ez bada ikusten ere, segurua da, eskuentzako heilduekin eta alboetan segurtasun enborrekin. Goian ere segurtasun enborra dauka, erabiltzaileak irristatzeko presta daitezten. Txirristaren zabalerak 2 erabiltzaile aldi berean irrist egitea eskaintzen du. Txirristaren arrapalan, alboetan 2 segurtasuneko enbor daude istripuak ekiditeko. Txirristaren arrapalaren azken zatia horizontala izanda, ez du erabiltzailea igerileku hondora eramaten, beraz, 1,4-1,6 m.-ko sakontasuna duen igerilekuko eremuan arazorik gabe munta daiteke. Txirrista azpian ikusten diren umeen zati hori arrisku zintaz balizatuta egongo litzateke. Txirrista igerilekuko hondoko ainguraketa sistemetara lotuta egongo litzateke.

Kasu honetan oztopo lerroa "L" forman eratzen da, horretarako kurbadun modulua erantsiz.

Eskailera eramangarriei dagokienez, bat gehigarria beste toki batean kokatzen da bainu librea-jolaserako eremuan.

Oinetako ur-putzuek adierazten dutenez, 4 sarbide egongo dira berdegunetik igerileku eremura. Hortaz, neguko denboraldian leiho horren aldean kokaturiko eserlekuak kendu egiten dira sarbideak antolatzeke.

Udako denboraldian, uztaileko goizetan, udako denboraldiko jolaserako datozen erabiltzaileez gain, uda kanpainako ikastaroak antolatzen dira (2 hamabostaldiko ikastaro trinkoak, astelehenetik larunbatera).


Erabiltzaile arruntek beti (udako denboraldian zein negukoan) 10 kale (50 m.-ko kalea = 2 kale 25 metrokoak) izango dituzte erabilgarri. Horrela oreka bat bilatzen da erabiltzaile arrunten eta antolatutako ekintzen erabiltzaileen artean.

Jolas eremuko erakargarritasun ezberdinen ilarak, beti bezala, zintadun zutoinen bitartez kudeatzen dira. Oztopo linearen eta txirrista erraldoiaren kasuetan, bateriadun semaforo eramangarriaz osatzen da kudeaketa, 30 segundoko tartea emanez (adibidez) erabiltzaile bat eta bestearen artean. Erakargarritasun bakoitzaren ondoan segurtasun argibideak agertuko dira panel batean piktogramen bidez. Gutxieneko altuera eskatzen denean neurgailu praktiko bat egongo da panelaren ondoan.



Udako denboraldian *gym corner*-a kendu egiten da beste ekintza batzuei lehentasuna emanez.

**ANTOLATUTAKO EKINTZA EZBERDINETARAKO ESPAZIOAK: UDAKO DENBORALDIA (arratsaldez, astean zehar; asteburua)**




Goizarekin alderatuta, aldatzen diren gauza bakarrak dira bainu librerako-jolaserako eremua handitzen dela eta erabiltzaile arruntek 2. kale olinpikoaz disfruta dezaketela.

..... Gehieneko edukiera kontrolatzeko zutoinei lotutako zinten sistema (ig. ertaina eta txikiaren artean, ig. ertaineko paretari itsatsita, eta ig. ertaina eta handiaren artean, 1,5 metro tara).






Sarrera/irteera puntuak.

▼ Zutoinek gehieneko edukiera kontrolatzen duten sensore digitalak daukate, paretan dagoen kontagailu digitalera eta kronometrora konektatuta. Sarrera eta irteerako ate automatikoak. Sorosleak urrutiko agente bitartez eskuz zabalduta itxi ditzake ateak, erabiltzaileak ateak daukan txirrina joz gero. Zutoinei lotutako zinten sistema eta sensore digitalak daukaten ate automatikoak 5 minututan muntatzen eta desmuntatzen den sistema da.


# ANTOLATUTAKO EKINTZA EZBERDINETARAKO ESPAZIOAK: IGERIKETA TXAPELKETA



## Sinbolo berrien esanahia

-  Jauziak egiteko plataformak
-  Igerilari eta epaileentzako aulkiak
-  Epaimahaikideen lanerako mahaia
-  Pantaila elektronikoa
-  Putzu ez erabilgarriak

5 metro tara jarritako banderatzxo-ilarak eta igerileku erdiko soka (irteera faltsua). Igerilekuko alboetan txilinbueltak emateko panelak eta sentsoreak jarriko ziren.



## 5. ORDUTEGIA (IGERILEKUA)



Ordutegi arrunta: 6:30-21:30.



Asteburu eta jaiegunetako ordutegia: 8:30-13:30 - - - 16:00-20:00.



Udako ordutegia: 9:00-21:00.



Kiroldegia itxita.



Igerilekua itxita (derrigorrezko garbiketa).

\* Oharrak: - Igerilekua eta bestelako zerbitzuak instalazioa baino 30 minutu lehenago ixten dira.

- Igerilekuko derrigorrezko garbiketa egiteko San Juan jaietan astebete (7 egun), ahalik eta jende gutxiengoari kalte egiteko.

(2019)

URTARRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

OTSAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

MARTXOA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

APIRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAIATZA						
A	M	E	E	E	Z	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA						
A	M	E	E	E	Z	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

UZTAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

ABUZTUA						
A	M	E	E	E	Z	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

IRAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

URRIA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

## 6. FLUXUMETROA ETA GEHIENEZKO EDUKIERA

### 6.1. Gaur egungo igerilekua (barrukoa)

Fluxumetro teorikoa, astean zehar, 14,5 orduko zerbitzua (7:00etatik 21:30etara).

- Fluxu normala

- Igerileku handia:

- 6 kale X 3 erabiltzaile, 30 minutu, batz beste= 18 erabiltzaile aldi berean.
- 14,5 orduko zerbitzuan 29 tarte daude 30 minutukoak.
- 29 tarte X 18 pertsona= 522 erabiltzaile asetuta.

- Igerileku txikia:

- 32 erabiltzaile egon ahal dira aldi berean (gehienezko edukiera), batz beste 45 minutu.
- 14,5 orduko zerbitzuan 19,33 tarte daude 45 minutukoak.
- 19,33 tarte X 32 pertsona= 618,66 erabiltzaile asetuta.

- Mugako fluxua

- Igerileku handia:

- 6 kale X 5 erabiltzaile, 30 minutu, batz beste= 30 erabiltzaile aldi berean.
- 14,5 orduko zerbitzuan 29 tarte daude 30 minutukoak.
- 29 tarte X 30 pertsona= 870 erabiltzaile erdizka asetuta.

\* Oharra: fluxu teoriko hauek gutxituak izango dira ikastaroak dauden bitartean 2 kale gehienez okupatzen baitira.

- Gehienezko edukierak (GAO, 2016ko maiatzaren 26a, Arrasateko kirol instalazioen araudia):

- Barruko igerilekuak: 100 erabiltzaile (ig. handia); 32 erabiltzaile (ig. txikia).
- Kanpoko igerilekuak: 525 (ig. handia); 72 erabiltzaile (ig. ertaina); ez dago gehienezko edukierarik (ig. txikia). Kanpoko igerilekuen gehienezko edukiera orokorra: 1500 erabiltzaile.

- Sauna umela: 12 erabiltzaile.
- Sauna lehorra: 12 erabiltzaile.
- Etzaulkiak: 6 etzaulki.



## 6.2. Irudikatutako igerilekua

Fluxumetro teorikoa, astean zehar, 14,5 orduko zerbitzua, konparaketa errealista egin ahal izateko.

- Fluxu normala

- Igerileku handia:

- 10 kale X 3 erabiltzaile, 30 minutu, bataz beste= 30 erabiltzaile aldi berean.
- 14,5 orduko zerbitzuan 29 tarte daude 30 minutukoak.
- 29 tarte X 30 pertsona= 870 pertsona asetuta.

- Igerileku txikia:

- 72 erabiltzaile egon ahal dira aldi berean (gehienezko edukiera), bataz beste 45 minutu.
- 14,5 orduko zerbitzuan 19,33 tarte daude 45 minutukoak.
- 19,33 X 72 pertsona= 1391,76 erabiltzaile asetuta.

- Mugako fluxua

- Igerileku handia:

- 10 kale X 5 erabiltzaile, 30 minutu, bataz beste= 50 erabiltzaile aldi berean.
- 14,5 orduko zerbitzuan 29 tarte daude 30 minutukoak.
- 29 tarte X 50 pertsona= 1450 pertsona erdizka asetuta.

\* Oharra: fluxu teoriko hauek ez dira gutxituak izango ikastaroak dauden bitartean, erabiltzaile mota bakoitzak bere espazioa baitu. Erabiltzaile arruntek uneoro (neguko denboraldian zein udakoan) 10 kale izango baitituzte erabilgarri.

- Gehienezko edukierak (32/2003 dekretua, otsailaren 18koa; 11. artikulua)

- Barruko igerilekuak:

[urtegi bakoitzean erabiltzaile bat 3 m<sup>2</sup>-ko]

- Ig. handia, gehigarria (50m-ko bi kaledun urtegia): 5 X 50 m.= 250 m.<sup>2</sup>  
= 83 erabiltzaile.
- Ig. handia (25 m-ko 20 kaledun urtegia): 25 X 50 m.= 1250 m.<sup>2</sup>  
= 416 erabiltzaile.
- Ig. ertaina (12 X 18 m.-ko urtegia): 12 X 18 m.= 216 m.<sup>2</sup>  
= 72 erabiltzaile.
- Ig. txikia (5 urtetik beherakoentzako urtegia): 8 X 9 m.= 72 m.<sup>2</sup>  
Ez dauka gehienezko edukierarik.
- Ur-txorroten korridorea (2 X 8 m.): ez dauka gehienezko edukierarik.

[gehienezko edukiera orokorra, instalazioarena: erabiltzaile bat m.<sup>2</sup> -ko estalpeko igerilekuetan]

- Urtegi guztietako ur-xaflen azalera batura: 1788 m.<sup>2</sup> = 1788 erabiltzaile.

- Sauna umela: 24 erabiltzaile.
- Sauna lehorra: 24 erabiltzaile.
- Etzaulkiak: 12 etzaulki.
- Spa gunea: 31 erabiltzaile (erabiltzaile bat 2 m<sup>2</sup>-ko).
- T<sup>a</sup> kontrastea egiteko putzua: 2 erabiltzaile.
- Aldagela orokorra: 31 pertsona (kabina indibiduala barne).
- Taldeentzako aldagela: 32 pertsona (eserlekuko 1 m. bat erabiltzaile bakoitzeko).
- Aldagela familiarra: 3 pertsona kabina bakoitzeko X 8 = 24 erabiltzaile.  
Orgak uzteko 2 txokoak: 8 orga guztira.
- Elbarrien aldagela: kabina bakoitza elbarri bat eta bere laguntzailearentzako ( 4 kabina). Kabina batean 2 elbarri fisikoki autonomo sartu ahal dira.

## **7. ESPAZIOAREN KUDEAKETAREN GARRANTZIA. SOROSLEA ESPAZIOAREN KUDEATZAILE**

Espazio berri bat eraikitzerako orduan kontutan izan beharreko lehenengo irizpidea beteko dituen helburuak eta herri mailan dauden eta egon daitezkeen (etorkizunean) behar sozialak kontutan izatea da. Behin hori garbi edukita, irizpide teknikoak errespetatu behar dira espazioa antolatzerakoan (edukiera, hondartzen zabalera, neurriak, sakontasuna, arrapalen aldapak, materialak...) ikuspegi arkitektonikotik. Espazio horretan bertan lan egingo duten profesionalen iritziz teknikoak eta espazio hori erabiliko duten erabiltzaileen iritziz ere kontutan hartu behar dira, gehienon (denon, utopia da) asebetetzea lortzeko. Hau dena irizpide ekonomikoarekin orekatuz.

Nire arloari dagokionez, 18 urtez igerilekuko langile (sorosle gehienbat eta begiralea baita) izanda, behar moralizatzaileak daukat nire iritziz teknikoak txosten honetan islatzea erabakiak hartu behar dituztenentzat lagungarri izango zaielakoan.

Igerileku publiko baten espazioa kudeatzea berebiziko garrantzia dauka kalitatezko zerbitzua eskaintzeko, erabiltzaileen asebetetzea lortzeko, orden bat mantentzeko eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko. Horregatik plano ezberdinetan espazioaren kudeaketaren detaile guztiak islatzen saiatu naiz ahalik eta modu ulergarrian mahai gainean jartzeko. Honi lotuta, soroslea espazioaren kudeatzailea den heinean, ezinbesteko erreminta da antolatutako ekintzen koadrantea edukitzea espazioa ahalik eta modu eraginkorrean kudeatu ahal izateko. Adibide gisa, neguko eta udako denboraldietako antolatutako ekintzen koadrantea planteatzen da irudikapena errealitatera hurbiltzeko.

## IGERILEKUKO KOADRANTEA: ASTEKO ANTOLATUTAKO EKINTZAK, NEGUA

ASTELEHENA, ASTEAZKENA, OSTIRALA								
ER1	ER2	H1	H2*	H3	H4	H5	H6**	
6.30-7.15								
7.15-8.00								
8.00-8.45								OSAKI.
8.45-9.30	3. adina			3. adina				OSAKI.
9.30-10.15	3. adina	ISK	ISK	Aquagym	Matro au	Held has.	TAFYD	OSAKI.
10.15-11.00	Aquapil.	ISK	ISK	Aquazun	Matro po	Held hob.	INSTI.	OSAKI.
11.00-11.45	Egokitu	ISK	ISK	Egokitu	Held oih.	Held ent.	INSTI.	OSAKI.
11.45-12.30	3. adina			3. adina			S. Juan	OSAKI.
12.30-13.15								OSAKI.
13.15-14.00	Aquapil.		Held oih	Aquagym	Held has			OSAKI.
14.00-14.45			Held hob	Aquazun	Held ent			OSAKI.
14.45-15.30								OSAKI.
15.30-16.15	Haurtx.	Haurtx.	Matro au		Matro po			OSAKI.
16.15-17.00	Haurtx.	Haurtx.						JOLASA
17.00-17.15								JOLASA
17.15-18.00	Olagarro	Olagarro	Karr./Karr.	Egokitu	Ige./Ige.	Ar. ig. tal.	Ar. ig. tal.	JOLASA
18.00-18.45	Aqz kids	Egokitu	Amuarrain	Aqz gazte	Izurde	Amuarrain	Izurde	JOLASA
18.45-19.30	Aqz kids		Held. oih.	Aquagym	Marrazo	Marrazo	Held. has.	JOLASA
19.30-20.15	Aquapil.		Ar. ig. tal.	Aquazun.	Ar. ig. tal.	Held. hob.	Held. ent.	JOLASA
20.15-21.00			Ar. ig. tal.	Ar. ig. tal.	Ar. ig. tal.	Ar. ig. tal.		JOLASA
21.00-21.30			Ar. ig. tal.	Ar. ig. tal.	Ar. ig. tal.	Ar. ig. tal.		JOLASA

ASTEARTEA, OSTEGUNA								
ER1	ER2	H1	H2*	H3	H4	H5	H6**	
6.30-7.15								
7.15-8.00								
8.00-8.45								OSAKI.
8.45-9.30	3. adina			3. adina				OSAKI.
9.30-10.15	3. adina	ISK	ISK	Aquagym	Matro au	Held. has	ZIG	OSAKI.
10.15-11.00	Aquapil.	ISK	ISK	Aquazun	Matro po	Held. hob	INSTI.	OSAKI.
11.00-11.45	Egokitu	ISK	ISK	Egokitu	Held. oih	Held ent.	INSTI.	OSAKI.
11.45-12.30				3. adina			Aita Me	OSAKI.
12.30-13.15								OSAKI.
13.15-14.00	Aquapil.		Held. oih		Held has			OSAKI.
14.00-14.45			Held. hob		Held ent			OSAKI.
14.45-15.30								OSAKI.
15.30-16.15	Haurtx.	Haurtx.	Matro au		Matro po			OSAKI.
16.15-17.00	Haurtx.	Haurtx.						JOLASA
17.00-17.15								JOLASA
17.15-18.00	Olagarro	Egokitu	Karr./Ige.	Aqg gazte	Ar.ig.tal.	Ar.ig.tal.		JOLASA
18.00-18.45	Aqz kids		Amuarrain	Egokitu	Izurde	Marrazo		JOLASA
18.45-19.30	Aquapil.		Held. oih.	Aquagym	Held. has	Held. hob		JOLASA
19.30-20.15			Ar. ig. tal.	Aquazun.	Ar.ig.tal.	Held. ent		JOLASA
20.15-21.00			Ar. ig. tal.	Ar.ig.tal.	Ar.ig.tal.	Ar. ig. tal.		JOLASA
21.00-21.30			Ar. ig. tal.	Ar. ig. tal.	Ar. ig. tal.	Ar. ig. tal.		JOLASA

ER= igerileku ertaina

H= igerileku handia (ikusidagokion plano espazioak ulertzeko).

\* = 2 kale

\*\* = 4 kale

## Eskaintako aktibitateak

- 3. Adina
  - ISK: Igeriketa Sustapen Kanpaina
  - Matro au.: matrogym (haurdunak) erditze aurretik.
  - Matro po.: matrogym (haurdunak) erditze ondoren (post).
  - Aquagym: aquagym helduak.
  - Aquazun.: aquazunba helduak.
  - Aqz kids: aquazunba umeak.
  - Aqz gazte: aquazunba gazteak.
  - Aqg gazte: aquagym gazteak.
  - Aquapil.: aquapilates helduak.
  - Egokitu: igeriketa egokitua (elbarriak).
  - Haurtx.: haurtxoak (6 hilabete 4 urte). } 3 lerro
  - Olagarro: olagarroak (umeak).
  - Karr.: karramarroak (umeak).
  - Ige.: igelak (umeak).
  - Amuarrain: amuarrainak (umeak).
  - Izurde: izurdeak (umeak).
  - Marraz.: marrazoak (umeak).
- Igeriketa eskola (umeak)  
4 lerro (asth-astz. X 2, ast.-ost.; larun.)

- Held. oih.: helduak ohitzea.
  - Held. has.: helduak hastapena.
  - Held. hob.: helduak hobekuntza.
  - Held. ent.: helduak entrenamendua.
  - Ar.ig. tal.: Arrasate igeriketa taldea.
  - TAFYD: TAFYD taldea (Arizmendi).
  - INSTI.: Arrasate institutua.
  - S. Juan: San Juan de Dios-eko gaixoak.
  - Aita Me.: Aita Menni-ko gaixoak.
  - ZIG: ZIG Arizmendi, Arrasate institutua.
  - OSAKI.: OSAKIDETZA-ko errehabilitazio programa (igeriketa terapeutikoa, asteleheneretik ostiralera 8.00etatik 16.00etara).
  - JOLASA: jolaserako espazioa/ waterpolo/piragüismoa/stand up paddle/urpekaritza.
  - Igandea: aktibitate arruntarik ez.
- Igeriketa eskola (helduak)  
3 lerro, 3 ordutegi:  
goiza, eguerdia, arrats.

LARUNBATA					
ER1	ER2	H1	H2*	H3	
8.30-8.45					
8.45-9.30					
9.30-10.15					
10.15-11.00	Aqz kids	Olagarro	Karr./Ige.	Aqz gazte	Amuarrain
11.00-11.45	Haurtx.	Haurtx.	Izurde	Egokitu	Marrazo
11.45-12.30	Haurtx.	Haurtx.	Held. oih	Aquagym	Held. has
12.30-13.15	Aquapil.	3. adina	Held. hob	Aquazun	Held ent
13.15-13.30	Materiala jaso eta gordetzea				
16.00-16.45					
16.45-17.30					
17.30-18.15					
18.15-19.00					
19.00-20.00					

ASTELEHENA-OSTIRALA						
	ER1	ER2	H1	H2*	H3	H (gainontzekoa)
9.00-9.30						JOLASA
9.30-10.15						
10.15-11.00	Aqz kids	Olagarro	Karr./Ige.	Aqz gazte	Amuarrain	
11.00-11.45	Haurtx.	Haurtx.	Izurde	Egokitu	Marrazo	
11.45-12.30	Haurtx.	Haurtx.	Held. oih	Aquagym	Held. has	
12.30-13.15	Aquapil.	3. adina	Held. hob	Aquazun	Held ent	
13.15-14.00	JOLASA	Igerian egiteko espazioa: erabiltzaile arruntak	JOLASA	Igerian egiteko espazioa: erabiltzaile arruntak	JOLASA	
14.00-14.45						
14.45-15.30						
15.30-16.15						
16.15-17.00						
17.00-17.15						
17.15-18.00						
18.00-18.45						
18.45-19.30						
19.30-20.15						
20.15-21.00						

LARUNBATA					
	ER1	ER2	H1	H2*	H3
9.00-9.30					
9.30-10.15					
10.15-11.00	Aqz kids	Olagarro	Karr./Ige.	Aqz gazte	Amuarrain
11.00-11.45	Haurtx.	Haurtx.	Izurde	Egokitu	Marrazo
11.45-12.30	Haurtx.	Haurtx.	Held. oih	Aquagym	Held. has
12.30-13.15	Aquapil.	3. adina	Held. hob	Aquazun	Held ent
13.15-14.00	JOLASA	Igerian egiteko espazioa: erabiltzaile arruntak	JOLASA	Igerian egiteko espazioa: erabiltzaile arruntak	JOLASA
14.00-14.45					
14.45-15.30					
15.30-16.15					
16.15-17.00					
17.00-17.15					
17.15-18.00					
18.00-18.45					
18.45-19.30					
19.30-20.15					
20.15-21.00					

ER= igerileku ertaina

H= igerileku handia (ikusitako dagokion plano espazioak ulertzeko).

\* = 2 kale

#### Eskaintako aktibitateak

- 3. Adina
- ISK: Igeriketa Sustapen Kanpaina
- Matro aur.: matrogym (haurdunak) erditze aurretik.
- Matro pos.: matrogym (haurdunak) erditze ondoren (post).
- Aquagym: aquagym helduak.
- Aqua-zum.: aquazunba helduak.
- Aquaz kids: aquazunba umeak.
- Aquaz. gazte: aquazunba gazteak.
- Aquag gazte: aquagym gazteak.
- Aquapil.: aquapilates helduak.
- Egokitu: igeriketa egokitua (elbarriak).
- Haurtx.: haurtxoak (6 hilabete 4 urte).
- Olagar.: olagarroak (umeak).
- Karra.: karramarroak (umeak).
- IgeLa: igelak (umeak).
- Amuar.: amuarrainak (umeak).
- Izurde: izurdeak (umeak).
- Marraz.: marrazoak (umeak).

- Held. Oih.: helduak ohitzea.
- Held. Hast.: helduak hastapena.
- Held. Hob.: helduak hobekuntza.
- Held. Ent.: helduak entrenamendua.
- Ar.ig. tal.: Arrasate igeriketa taldea.
- TAFYD: TAFYD taldea (Arizmendi).
- Insti.: Arrasate institutua.
- S. Juan: San Juan de Dios-eko gaixoak.
- Aita Men.: Aita Menni-ko gaixoak.
- ZIG: ZIG Arizmendi, Arrasate institutua.
- OSAKIDETZA: OSAKIDETZA-ko errehabilitazio programa (igeriketa terapeutikoa, Astelehenetik Osiralerako 8.00etatik 16.00etara).
- Waterpolo/piragiismoa/Stand up paddle.
- JOLASA: jolaserako espazioa.
- Igandea: aktibitate arruntarik ez.

Udako kanpaina: uztailean 2 hamabostaldi. Ikastaro trinkoak astelehenetik larunbatera. Langileria: 5 begirale irailaren 16tik ekainaren 14ra, astelehenetik larunbat goizera gehi 2 begirale estra hutsuneak betetzeko. Udako kanpainarako, neguko denboraldiko 5 begiraleak, astelehenetik larunbatera, goizez. Abuztuan oporrak.

## 8. SEGURTASUNA. PREBENTZIOAREN GARRANTZIA

Soroslea izanik, segurtasuna oso kontutan hartzen dudun kontzeptua da. Horregatik oso garrantzitsua da protokoloen liburuxka izatea (ikusierantsitako artxiboan eredu). Erreminta honetaz gain soroslearen zaintzarako dorre bat ere aurreikusten da ur-eremuaren ikuspegi zabala izateko, begi-bistan oztoporik gabe (sorosle estatikoa). Honen kokalekua ere garrantzi handiko erabakia da. Horregatik espazioaren kudeaketa oso kontutan izanda, planoan agertzen den kokalekua hautatu da, bertatik 180°-ko ikuspegi-angeluan 3 putzuak eta sarbide-irteera guztiak kontrolpean izateko. Bertan ez dago eguzkiagatik tenperatura altuak pairatu behar, leihoen beste aldean kokatuta baitago dorrea. 3 putzuen antolaketa erabakitzeko orduan ere zaintzarako irizpide profesionalak oso aintzat hartu dira, erabilera ezberdinak eta aldagelen kokapenarekin batera. Dorrea botikin ondoan kokatzen da.

Neguko denboraldian 5X50 m.-ko putzu gehigarria estalita egongo denez, oso garrantzitsua da 2 putzu handien arteko korridore sanitario bat sortzea, kortxo-ilaren ainguraketak kokatzeko ere balio duena. Korridore sanitario honi esker dorrean dagoen sorosleak, hurbil daukan pasabidea zeharkatuz, korridorea erabilita, uretako edozein puntutan sor litekeen larrialdi-lekura gerturatzeko aukera izango du.

Uda partean ur-instalazioa erabileraren %100ean dagoenean, 2. sorosle dinamiko baten beharra islatzen da eta honen kokaleku estrategikoa baita, 2 sorosleen artean (estatikoa eta dinamikoa) lan-talde profesionala sortuz.

Sorosle estatikoari ur-azpiko eremuaren zaintza laguntzeko, detektagailu sistema elektronikoa bat proposatzen da, erantsitako bideoan erakusgarri geratzen den moduan (*Angel Eye*). Alarma sistemak sorosleak eskumuturrean eramango duen erloju antzekora eta dorreko albo batera erantsitako 10"-tako babestutako tablet batera jauzi egingo luke. Tablet honi ere berdeguneko bideo-zaintza sistema lotuta joango litzateke. Horrela, sorosle estatikoak estaldura-eremu guztiko kontrola izango du. Autobabes planaren arabera, sorosleak kiroldegi guztian gerta daitezkeen larrialdiei erantzuna emango die beti ere bere lanpostua hutsik utzi gabe. Horrela, kiroldegi osoan zehar larrialdietarako interfonoak planteatzen dira, soroslearen haririk gabeko telefonoarekin konektatuta. Berdeguneko interfonoak neguko denboraldian desaktibatuta egingo dira eta 112-ra deitzeko pegatinak jarriko zaizkie interfono horiei, berdeguneko eremu horiek parke publiko bilakatzen diren sasoi horretan.

2 profesionalen osaturiko lan-taldea izanik (uda denboraldian), funtzio ezberdinak ondo bereiztea komeni da.

- Sorosle estatikoa: koordinatzailea, botikineko arduraduna (1. sorospenak).

- Sorosle dinamikoa: laguntzailea, erabiltzailearekiko harreman zuzena (erabiltzaileari arreta deitu/informatu, igerileku ertaineko gehienezko edukiera kontrolatu) eta uretako erreskatea.

Igerileku ertainan gehienezko edukieraren gainditzea aurreikusten da zenbait puntako momentutan: neguko denboraldian, asteen zehar zenbait arratsaldetan eta eguraldi txarrarekin, 17:00etatik 19:30etara eta zenbait asteburu eta jaiegunetan eguraldi txarrarekin, 11:00etatik 13:00etara. Udako denboraldian, egun eguzkitsuetako arratsaldeak orokorrean, 16:00etatik 20:30etara. Gehienezko edukieraren kontrola sistema digital eta automatiko baten bitartez egitea proposatzen da (*Dinycont, Idasfest, Proenter...* enpresek eskaintzen duten bezala). Horretarako aldagea familiarra dagoen paretan 2 argidun (gorri/orlegi) semaforoa, kontagailu digitaleko pantaila eta atzerako martxadun kronometroa (urrutiko aginte bitartez kontrolatua) aurreikusten dira. Ur-putzua modu azkar eta erosoan inguratuz, zutoinei lotutako zintzen sistema bitartez egitea proposatzen da. Sarrera eta irteera puntuetan ate automatikoak egongo dira (modu azkarrean kendu eta jartzen direnak) izpi infragorritzko sentzore digitalekin, paretako seinaleei konektatuta. Zutoinei lotutako zintzen sistema eta sentzore digitalak dauzkaten ate automatikoak 5 minututan muntatzen eta desmuntatzen den sistema da. Protokolo sinple bat honakoa izan daiteke: sorosleak zutoinei lotutako zintzen sistemaz ur-putzu ertaina inguratzen du. Baita sarrera-irteera puntuak ere muntatzen ditu.

Erabiltzaileei sartzan uzten die gehienezko edukierara iritsi arte (irteera blokeatuta egongo da). Orduantxe sarrera itxi egiten da automatikoki eta kronometroa martxan jartzen da 20 minutuz. Kronometroak alarma jotzen duenean uretako erabiltzaileak irten egiten dira (irteera desblokeatu egiten da) eta hurrengo txanda sartzan da. Gerta daiteke 20 minutuko tarte horretan norbaitek komunera joan nahi izatea edo lehenago irtetea uretatik. Kasu horietan erabiltzaile horiei putzutik irteten uzten die sorosleak baina ez da beste inor sartzan, 20 minutuko tarte errespetatuz. Horretarako erabiltzaileak atek daukan txirrina jo behar du. Sorosleak eskuan izango duen urrutiko agintean abisua jasoko du eta berak eskuz zabaldu eta itxi ditzake ate automatikoak. Badakigu gehienezko edukieraren neurri hau herriaren aurkako neurritzat jo daitekeela ikuspuntu politiko batetik, baina erabiltzaileak jakin behar du bere segurtasunagatik egiten dela eta edozein zerbitzu publikok (ikastetxe, ospitale, liburutegi, errepide...) muga batzuk dauzkala eta ezin dela dimentsionatu puntako momentuetan soilik pentsatuz. Batz besteko erabilera aintzat hartzen da eta ezohiko egoerarako gertakizun edo kontingentzia plan bat eratu behar da zenbait neurriekin, igerilekuaren gure kasuan, aipaturiko neurriak, adibidez. Beste neurrietako bat ur-azpiegituren eskaintza zabaltzea izango litzateke: ildo honetan ulertu beharko genituzke Santa Barbaran sorturiko ur-txorrotan parkea (ikusitako aurrerago proposamena) eta DG-05D autobus linearen birplanteamendua (ikusitako aurrerago proposamena).

*Wellness* guneko gehienezko edukieraren kontrola eramateko ere sentsore bitarteko sistema automatiko bati esker eramango da, beti ere sorosleak izango duen urrutiko aginte batekin eskuz manipulatu ahal izango dena.

2 profesionalen (sorosle estatikoa eta dinamikoa) arteko komunikazioa *walkie-talkie*-z bideratuko da. Honetaz gain, sorosle estatikoak telefono mugikor baten laguntza izango du larrialdiak kudeatzeko. Barne deiak eta kanpoko deiak jasotzeko, ur-ingurunean dagoen zarata maila kontutan izanda, dorre ondoko paretan, botikineko atearen gainean semaforo bat egongo da 4 argiekin:

- **Urdin** keinukaria: larrialdia/ebakuazioa (argia piztu/itzaltzeko etengailua dorre ondoko paretan egongo da eta botikineko ate ondoan, barruan). Harrerarekin konektatuta.
- **Gorria**: botikina okupatuta.
- **Orlegia**: botikina libre.
- **Laranja** keinukaria: barne deia/kanpoko deia (kanpoko telefono bat edo berdeguneko/*wellness* guneko interfonoak). Haririk gabeko telefonoa dabil jotzen/botikineko beste aldeko korridoretik datorren pertsona bat bideo sistema duen atezain automatikoa dabil erabiltzen.

Prebentzioa ur-ingurunean sorosle talde guztiak ondo landuta izan behar duen gaia izango da. Beti ere prebenitzea hobe delako, sendatzea baino. Sorosleek beraien erantzukizuna duten bezala, erabiltzaileek ere beraien segurtasunean erantzukizun maila bat badute. Lan horretan laguntzeko, igerilekuko paretan prebentzioaren inguruko kartelak planteatzen dira istripuak ekiditeko, hidrokuzioa zer den azaltzeko eta hau saihesteko modua, etab. Konoen koloreen esanahia eta kaleetan igerian egiteko norabidea ere argituko litzukete kartel horiek.

Prebentzioak huts egiten duenean, orduan bai botikinaren beharra planteatzen da. Botikina ur-ingurunearen erdian dago kokatuta estrategikoki, edozein larrialdi-puntura denbora berdinean iritsi ahal izateko. Planoan ondo ikusten den moduan, botikina 2 eremutan dago antolatuta: botikina bera eta begirale zein sorosleen bulego lanetarako eremua. Botikinerako sarbidea igerilekutik gidaridun ate batekin (2 m.-ko zabalera) planteatzen da larrialdi egoera batean behar den azkartasuna lortzeko. Sarrera ondoko paretan semaforoaren etengailua egongo da eta zintzilik esku-ohetuzko ezberdinak (koilara

erakoa eta espinala), KDEA eta erreskaterako tutuak. Gurgildun aulkia (tolestatuta) ere ate ondoan egongo da, eskura. Botikinaren beste aldeko korridoreko atetik botikinera sartu ahal izateko bideo sistema duen atezain automatikoa planteatzen da. Horrela sorosleak botikinera sartzen den pertsona ororen kontrola izango du. Ate horrek (2 m.-ko zabalera) tope bat izango du larrialdi batean guztiz zabalik mantendu ahal izateko. Planoan agertzen den moduan, botikinera sartzeko 2 m.-ko zabalera korridorea planteatzen da, larrialdi zerbitzua datorrenean (ambulanzia) esku-ohea eta bestelako gailu elektronikoak zabaltasunez sar/irten daitezten.

Larrialdia, edozein puntutan izanda ere, sorosleak eskura izango ditu gailu guztiak larrialdi egoera profesionaltasunez kudeatzeko. Botikineko esku-oheak gurgilak izango ditu edozein puntura garraiatua izan dadin eta sorosleak eskuko botikin eramangarria izango du, botikineko armairuaren materiala bikoiztua izango duena.



Begiraleren bat bulego lanetan balego, pazientearen intimitatea zaintzeko 3 gortina zintzilikatzea planteatzen da. Horrela bulegotik igerilekura irten ahal da botikineko lana oztopatu gabe.


Larrialdi zerbitzuetarako sarbideak igerilekuko kanpoko korridorera sarbide zuzena dauka (harrerarekin konektatutako bideo sistema duen atezain automatikoa izango du atean). Horrela, ambulanzia profesionalak "L" itxurako ibilaldi bat eginda, botikinera iritsiko dira (ikusirik hurrengo orrialdean korridore sanitarioen planoak).

Sorosleek sortutako dokumentu sanitario guztiak zuzenean ordenagailuan gordeko dira eta intranet bitartez Zuzendaritzak informazio hori eskuragarri izango du. Sorosle bakoitza klabe pertsonalarekin sartuko da sisteman eta bertan sinatuko ditu dokumentuok.

Sorosleen prestakuntzan, urteroko simulazio bat planteatzen da (uda denboraldi hasieran, atek zabalik, hots, erabiltzaileekin) eta hiruhileko bakoitzeko praktika-ariketa ezberdinak (bendajeak, immobilizazioak, etab.). Modu honetan sorosleak aktibo mantenduko dira eta ezagutzak eguneratuta izango dituzte.

Bukatzeko, megafoniako sistema selektiboa izango du instalazioak zeinaren arabera mezu bat entzun nahi den espaziora mugatuko den. Instalazioak larrialdietarako seinaleak eguneratuta izango ditu eta paretatan pantaila digitaletan putzu bakoitzeko uraren tenperatura eta giroaren tenperatura. Halaber 32/2003 Dekretuak ezartzen dituen bestelako segurtasun neurriak.

# KORRIDORE SANITARIOAK: NEGUKO DENBORALDIA




Soroslearen zaintzarako dorrea erdigunean kokatuta izateak 180° -ko angeluan espazio osoa kontrolpean izatea ahalbidetzen dio sorosleari. Baita igerileku eremuko (aldagelak eta *spa* gunea, zein saunak barne) edozein puntutan sor litekeen larrialdi kasua artatzeko erantzuteko denbora berdina izatea.

- Uretako soroslearen ibilbide potentzialak.
- Larrialdietarako zerbitzuen ibilbidea botikineraino.



# KORRIDORE SANITARIOAK: UDAKO DENBORALDIA



Udako denboraldian 2 sorosle egongo dira goizez eta arratsaldez. Sorosle estatikoaren ibilbideak antzerakoak dira. Ezberdinta suna 5 X 50 m.-ko putzuan pasabiderik ez dagoela, igerilekuen itxitura erdi perimetralean 2 sarbide aurreikusten direla eta berdegunera irteteko korridore alternatibo bat zabaltzen dela *spa* gunea eta saunen aldetik, azkartasuna lortzeko. Sorosle dinamikoaren ibilbide potentzialak arrisku handien planteatzen duten eremuen erdigunetik hasten dira.

→ Sorosle estatikoaren ibilbide potentzialak.


→ Sorosle dinamikoaren ibilbide potentzialak.

→ Larrialdietarako zerbitzuen ibilbidea botikineraino.





2 igerileku handien arteko korridore sanitarioa erabiltzaileek ez inbaditzeko (zutik jarrita bertatik jauzi egiteko) "arantza-lerro" antzekoa kokatzea planteatzen da (zutoinei lotutako zinten sistema baxua).

# EBAKUAZIORAKO KORRIDOREAK: UDAKO DENBORALDIA



2 korridore planteatzen dira berdeguneko jende-fluxuaren ebakuaziorako. Korridore bakoitzaren berezitasunak:

-  Korridore lehorra: 3 metroko zabalera, baina ile-lehorgailuen zerbitzua dago paretan eta erabiltzaileak egon ahal dira hori erabiltzen (1 m. bateko zabalera). Beraz, erabilgarri 2 metroko zabalera geratzen da.
-  Korridore umela: 5 metroko zabalera, baina eserlekuak, dutxak eta umeak aldatzeko erretiluak daude paretan eta erabiltzaileak egon ahal dira horiek erabiltzen (1,5 m.-ko zabalera). Korridoreko beste alboan itxitura eramangarria dago, igerilekuko eskaileretatik 1,5 metrotara. Beraz, erabilgarri 2 metroko zabalera geratzen da.

$$\text{Fluxua (pax/s)} = \text{abiadura (m/s)} \times \text{pasabide sekzioa (m)} \times \text{dentsitatea (pax/m}^2\text{)}$$

$$8 \text{ perts./segundoko} = 2 \text{ m/s} \times 2 \text{ m.} \times 2 \text{ perts./m}^2$$

$$1 \text{ min.} = 60 \text{ segundo. } 8 \text{ perts./segundoko} \times 60 = 480 \text{ pertsona ebakuatzeko gaitasuna minutu batean korridore bakoitzak. Kasu honetan korridore lehorra interesatzen zaigu gehien.}$$

Igerilekuko gehienezko edukiera 1.788 pertsonakoa da. Hortaz, ebakuazio egoera batean (aparatu elektrikodun ekaitza, adibidez; 1.788 pertsonak ez dira egongo berdegunean), jende-fluxuaren abiadura ez dela konstantea kontutan izanda (erabiltzaile bati zerbait jausten zaio lurrera eta makurtu egiten da hori hartzera; aldageletatik jende-fluxura gehitzen dira erabiltzaile berriak; norbait beste batekin geratzen da hizketan, etab.) eta harrerara irteteko atearen zabalera 2 metrokoa dela suposatuz (inbutu efektua ekiditeko), 5-6 minututan jende-fluxu guztia korridore lehorretik ebakuatzeko ahalmena dago.

## **9. URAREN KUDEAKETA: DESINFEKZIOA, BEROTZEA ETA AURREZTEA**

### **9.1. Desinfekzioa**

Igerilekuetako ura desinfektatzeko oso ohikoa da kloroa eta bere konposatuak erabiltzea. Igerilekuan sartzean erabiltzaileak nabaritu ohi duen usain bortitzez gain, askotan azala lehortu egiten dio, hainbatetan azaleko gaixotasunak sortzen edo areagotzen dizkio (dermatitisa, eczema...), kasu batzuetan alergia ere sortzen dio, begiak gorritu egiten dizkio (ez baditu uretako betaurrekoak erabiltzen) eta bainujantziak erretzen dizkio.

Betiko sodiozko hipokloritoa (kimikoa) erabiltzeaz gain, badaude merkatuan beste produktu eta metodologia batzuk uraren desinfekzioa egin ahal izateko kostua/onura/ur-kontsumoaren aurrezpena/energia gastuaren aurrezpena formula aintzat hartuta:

- Bromoa.
- Gatzaren hidrolisia edo kobre/platazko ionizazioa.
- Gatzaren elektrolisia edo gatz-klorazioa.
- Argi ultra-morezko tratamendua.
- Ozonoa.
- Oxigeno aktiboa (debekatuta Espainian).
- Neolysis-a (sistema konbinatua).
- Elektroporazioa eta oxidazio aurreratua.

### **9.2. Berotzea**

Igerilekuko ura berotzeko ere, sistema ezberdinak erabiltzen dira:

- Igerilekuko putzuen eta paretan materiala eta isolamendua.
- Bero-trukagailua, gasez/biomasaz elikatua.
- Beroaren bonba (airea) efizientea.
- Berogailu elektrikoa.
- Eguzki-panelak.
- Igerilekuko putzuen estalkiak.
- Beroaren bonba geotermikoa.
- Igerilekuetako berriztatze uraren energiaren berreskuratzea (SediREC sistema).

Teknikoekin aztertu beharra dago zein sistema den egokiena Arrasateko Udal igerilekurako.

### **9.3. Aurrezte**

Askok ura XXI. mendeko petroleotzat dute. Egunetik egunera murriztagoa, estimatuagoa, baliotsuagoa da. Ura igerileku bateko oinarria izanda eta gastu handienetako bat, komenigarria da uraren kudeaketa efizientea eta sostengarria egitea.

- Igerilekuko sakontasuna arretaz aztertuko da, ur-kontsumoa neurrian mantentzeko.

- Ura desinfektatzeko erabiltzen den metodologiaren arabera, kanpora bidaltzen den urari 2. erabilera bilatu ahal zaio: berdegunea ureztatu, kaleak garbitu, etab.
- Gauean ur-putzuak estalkiaz estaliz, lurrunketaz galtzen den ur-kontsumoa murriztu egiten da, berotasuna mantentzeaz gain.
- “Limpia fondos” automatikoa erabiliz, filtroen garbiketan ura aurrezten da.
- Igerilekuko filtroak garbitzean ura soilik erabili ordez, airea eta ura konbinatuz erabili ahal dira turboarekin haizea ematen duten bonbak (*turbosoplantes*).
- Igerilekuko filtroetan birziklatutako beira erabili ahal da harea silizeoaren ordez, filtroen garbiketan ura aurreztuz.
- Euri-ura depositu batean gordez, aprobetxa daiteke berdegunea ureztatzeko, igerilekua betetzeko...
- Klimatizagailuak kondentsazioz sorturiko ura ere aprobetxagarria da beste erabilera baterako.
- Igerilekua eraikitzean pitzadurak baditu, ur-kontsumoa igo egingo da (tanta bat segundoko = 8.000 litro ur urtean).
- Igerilekua eraikitzean ur-kanal perimetral bikoitza egiten bada, jendea uretan sartzean eta irtetean sorturiko ziprztinengatik galdutako ura berreskura daiteke.
- Berdegunea ureztatzeko iluntzean egitea komeni da lurrunketa murrizteko.
- Komunetako ur-bonben kontsumo inteligentea da beste neurrietako bat.
- *Ósmosis inversa* sistema ezartzea, putzuetatik kaleratzen den uraren aprobetxamendurako.
- Izpi ultra-moreen lanpara sistema ezartzea putzuetako uraren tratamendurako.
- Ozonoa erabiltzea putzuetako uraren tratamendurako.
- *Smart Water* sistema ezartzea ur beroa kontsumo puntuetaraino iritsi arte, ur hotza berreskuratzen duena.

Erabiltzaileak ere uraren kudeaketaren erantzule zuzenak direnez, ur-kontsumoaren inguruko kontzientziario kanpaina iraunkorra aurrera eramatea ezinbestekoa ikusten da, betiko kartelaz gain, beste sistema modernoagoak instalatuz:

- Dutexek pultsadorean txip inteligentea izan ditzakete eta erabiltzaileak duen hurbileko txartelaren bitartez, dutxa aktibatu eta ur-kontsumoa neurtu. Datu hori erabiltzailearen inplikazioa lortzeko erabiliko da ur-gehien aurrezten dutenei sarituz (kiroldegiko kuotan %5eko deskontua, afari bat, opari materiala...). Horrela erabiltzaileak fidelizatu egingo lirarteke, ur-kontsumoaren aurrezte bultzatzeaz gain. Beste neurri zorrotzagoa izango

litzateke txip inteligentearen bitartez, 8 dutxa/eguneko/pertsonako bezalako ratioak ezartzea.

Orokorrean kudeaketa domotiko zentrala ezarriz, ura eta energia aurrezteko politikak bultzatuko ditugu, segurtasunean irabazten da eta erabiltzaileen *konfort-a* lortzen da.

#### 9.4. Ur-kontsumoa


Ondorengo orrialdetan gaur egungo igerilekuen ur-kontsumo puntuala (momentu jakin batean) aztertzen da eta irudikatutako igerilekuen ur-kontsumoa ere bai. Erabilitako formulak:

$$\text{Azalera}_{\text{trapezioa}} = \frac{\text{Alde handiena} + \text{alde txikiena}}{2} \times \text{oinarria}$$

$$\text{Bolumena} = \text{oinarriaren azalera} \times \text{igerilekuko zabalera}$$

- Gaur egungo igerilekua

- Barrukoa, handia



$$\boxed{\text{A}}$$

$$\text{Azal} = \frac{1,6 + 1,4}{2} \times 8,2 = 12,3 \text{ m}^2$$

$$\text{Bol.} = 12,3 \times 12,5 = 153,75 \text{ m}^3$$

**B**


$$\text{Azal} = \frac{1,6 + 1,2}{2} \times 16,8 = 23,52 \text{ m}^2$$

$$\text{Bol.} = 23,52 \times 12,5 = 294 \text{ m}^3$$

---

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 153,75 + 294 = \mathbf{447,75 \text{ m}^3}$$

- **Barrukoa, txikia**



**A**

$$\text{Azal} = \frac{0,9 + 0,8}{2} \times 6,25 = 5,3125 \text{ m}^2$$

$$\text{Bol.} = 5,3125 \times 8 = 42,5 \text{ m}^3$$

**B**

Berdina


---

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 42,5 \times 2 = \mathbf{85 \text{ m}^3}$$

---

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 447,75 + 85 = \mathbf{532,75 \text{ m}^3}$$

- Kanpokoia, handia



**A**

$$\text{Azal} = \frac{2 + 1,8}{2} \times 25 = 47,5 \text{ m}^2$$

$$\text{Bol} = 47,5 \times 21 = 997,5 \text{ m}^3$$


**B**

Berdina

---


$$\text{Bol}_{\text{guztira}} = 997,5 \times 2 = \mathbf{1.995 \text{ m}^3}$$

- Kanpokoia, ertaina



**A**

$$\text{Azal.} = \frac{1,1 + 0,8}{2} \times 8,35 = 7,9325 \text{ m}^2$$

$$\text{Bol.} = 7,9325 \times 12,6 = 99,9495 \text{ m}^3$$


**B**

Berdina

---

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 99,9495 \times 2 = \mathbf{199,899 \text{ m}^3}$$

- Kanpoko, txikia



**A**

$$\text{Azal.} = \frac{0,4 + 0,3}{2} \times 4,1 = 1,435 \text{ m}^2$$

$$\text{Bol.} = 1,435 \times 8,2 = 11,767 \text{ m}^3$$

**B**

Berdina

---

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 11,767 \times 2 = \mathbf{23,534 \text{ m}^3}$$

\* Oharra: kanpoko igerilekuan ez da kontutan hartu gainezkabidea, paretak zuzenak izango balira bezala irudikatu da putzua kalkulua errazagoa izan dadin.

---



---

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 1.995 + 199,899 + 23,534 = \boxed{2.218,433 \text{ m}^3}$$


---

**Barruko igerilekua + kanpoko igerilekua**

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 532,75 + 2.218,433 = \boxed{2.751,183 \text{ m}^3}$$

• **Irudikatutako igerilekua**

- **Barrukoa, handia, oinarrizkoa**



**A**

$$\text{Azal} = \frac{1,6 + 1,4}{2} \times 8,2 = 12,3 \text{ m}^2$$

$$\text{Bol.} = 12,3 \times 25 = 307,5 \text{ m}^3$$

**B**


$$\text{Azal} = \frac{1,6 + 1,2}{2} \times 41,8 = 58,52 \text{ m}^2$$

$$\text{Bol.} = 58,52 \times 25 = 1.463 \text{ m}^3$$

---

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 307,5 + 1.463 = \boxed{1.770,5 \text{ m}^3}$$

- Barrukoa, handia, gehigarria



**A**

$$\text{Azal.} = \frac{1,3 + 1,2}{2} \times 25 = 31,25 \text{ m}^2$$


$$\text{Bol.} = 31,25 \times 5 = 156,25 \text{ m}^3$$

**B**

Berdina

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 156,25 \times 2 = 312,5 \text{ m}^3$$

- Barrukoa, ertaina



**A**

$$\text{Azal.} = \frac{0,9 + 0,8}{2} \times 9 = 7,65 \text{ m}^2$$

$$\text{Bol.} = 7,65 \times 12 = 91,8 \text{ m}^3$$


**B**

Berdina

---

$$\text{Vol}_{\text{guztira}} = 91,8 \times 2 = \mathbf{183,6 \text{ m}^3}$$

- **Barrukoa, txikia**



**A**

$$\text{Azal} = \frac{0,4 + 0,3}{2} \times 4,5 = 1,575 \text{ m}^2$$

$$\text{Vol} = 1,575 \times 8 = 12,6 \text{ m}^3$$


**B**

Berdina

---

$$\text{Vol}_{\text{guztira}} = 12,6 \times 2 = \mathbf{25,2 \text{ m}^3}$$

- **Spa gunea**



**A**

$$\text{Azal} = \frac{1 + 0,9}{2} \times 5 = 4,75 \text{ m}^2$$

$$\text{Bol.} = 4,75 \times 7 = 33,25 \text{ m}^3$$

**B**

Berdina

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 33,25 \times 2 = 66,5 \text{ m}^3$$

\* Oharra: *spa* gunearen bolumena kalkulatzeko ez da kontutan izan temperatura kontrastea egiteko putzua, baizik eta putzu handiaren neurriak baizik (10 X 7 m.).

**Barruko igerilekua + spa gunea**

$$\text{Bol.}_{\text{guztira}} = 1.770,5 + 312,5 + 183,6 + 25,2 + 66,5 = \mathbf{2.358,3 \text{ m}^3}$$

Gaur egungo igerilekuak		Irudikatutako igerilekuak	
Putzua	Bolumena (m <sup>3</sup> )	Putzua	Bolumena (m <sup>3</sup> )
Handia, barrukoa	447,75 m <sup>3</sup>	Handia, barrukoa	1.770,5 m <sup>3</sup>
Txikia, barrukoa	85 m <sup>3</sup>	Handia, gehigarria	312,5 m <sup>3</sup>
Handia, kanpokoak	1.995 m <sup>3</sup>	Ertaina, barrukoa	183,6 m <sup>3</sup>
Ertaina, kanpokoak	199,899 m <sup>3</sup>	Txikia, barrukoa	25,2 m <sup>3</sup>
Txikia, kanpokoak	23,534 m <sup>3</sup>	<i>Spa</i> gunea	66,5 m <sup>3</sup>
GUZTIRA	<b>2.751,183 m<sup>3</sup></b>	GUZTIRA	<b>2.358,3 m<sup>3</sup></b>

$$2.751,183 \text{ m}^3 - 2.358,3 \text{ m}^3 = 392,883 \text{ m}^3 \text{-ko aurreztea.}$$

## 10. PERTSONAL BEHARRAK: LANGILERIA

Langileriaren gaia mahai gainean jartzerakoan erabiltzaileen segurtasuna bermatuta gera dadila kontutan hartu beharreko lehenengo irizpidea izan beharko litzateke, aldi berean kirol azpiegituraren gastu finkoen fakturarekin orekatuz. Hortaz, kirol azpiegitura diseinatuta dago neguko denboraldian txanda bakoitzeko sorosle bakarrarekin ondo kudeatuta gera dadin. Horretarako putzuen diseinua eta kokapena kontutan hartu dira, soroslearen dorrearen kokapen estrategikoa ere bai, soroslearentzako lagungarri den teknologia ere bai (atezain automatikoa, ur-azpiko alarma sentsoreak, mugikorra, larrialdietarako interfonoak) eta elementu ludikoen antolakuntza ere bai (kokapena, semaforoak, jende-fluxua).

Antolatutako ekintzak gaur egungo igerilekukoak baino ugariagoak izango diren arren, kontutan hartu behar dugu ekintza bakoitzak arduradun edo begirale bat izango duela. Igerileku txikian ere (5 urtera arteko eremua) arduradun baten zaintzapean egon behar dira umeak.

Udako denboraldian, aldiz, txanda bakoitzeko 2. sorosle bat aurreikusten da, elementu ludiko gehiago dagoelako eta jende kopurua handiagoa izango delako. Gaur egungo kanpoko botikineko estatistikak ez du zerikusirik izango kirol azpiegitura berriak izango duen botikineko estatistikarekin. Hortaz, ez da sorosle bat arratsaldeko 16:00etatik 20:00ak bitartean "hipotekatuta" geratuko botikineko lanetarako.

Bestelako igerilekuko langileria:

- Harrerako taldea: kiroldegi osoko funtzionamenduaren barruan dagoen lan-taldea da. Udako denboraldiko arratsaldetan errefortzuaren beharra ikusten da jende-fluxu altua ondo kudeatu ahal izateko. Neguko denboraldian, ikasturte berriko epean ere errefortzuaren beharra ikusten da.

- Ur-ekintzetarako begirale taldea: 5 begirale irailaren 16tik ekainaren 14ra, astelehenetik larunbat goizera gehi 2 begirale estra hutsuneak betetzeko. Udako kanpainarako, neguko denboraldiko 5 begiraleak, astelehenetik larunbatera, goizez. Beraien lanaldiak %100eko portzentajera irits daitezten lehorreko ekintzen eskolekin osa daitezke. Horrela langileria egonkortu egingo litzateke lan-aukerak aproposak baitira eta hori eskolen kalitatean islatuko litzateke. Abuztuan oporrak.

- Uda denboraldiko bibliopiszina programa: uztailan zehar sabaiko berdegunean eskainiko den doako zerbitzua izango da, Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi elkarteak kudeatuta Arrasateko gazteen bitartez. Uztailaren 1etik 31ra bitartean eskainiko da zerbitzua, goizeko 10:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 20:30etara.

- Uda denboraldiko kioskoa: udako denboraldi osoan zehar berdegunean eskainiko den zerbitzua izango da, goizeko 10:30etatik 20:30etara. Azpikontrataturik izatea aurreikusten da. Ordutegia betetzea eskatuko zaio enpresari, eguraldi txarra (euria) egiten duen egunak salbu. Prezioak erakargarriak izan daitezela ere eskatuko da erabiltzaileak *Eroskira*, *Merke lekura*, *Kontxora*... joan ez daitezten. Prezioen politika enpresari eskatzen zaizkion baldintzekin bat etorriko da.

- Uda denboraldiko garbiketa zerbitzuko errefortzua: igerilekua jende-fluxu handia izaten duen zerbitzua izanik, eguerdi aldera 13:00etatik 16:00ak bitartean, garbiketa zerbitzuaren beharra ikusten da, zakarrontziak husteko, korridore lehorra zein umeleko zorua garbitzeko eta komunetan garbiketa azkar bat egiteko. Zakarrontziak husteko lana

errepikatu egingo da arratsaldeko 18:00etan. Gauean ohiko garbiketaren barruan sartuko litzateke igerilekuaren eremua.

- Uda denboraldiko etzaulkien zerbitzua: zerbitzu hau doakoa izango da eta ez du langilerik eskatuko. Zuzendaritzak beheko berdegunean 5 etzaulki jarriko ditu erabiltzaileentzat eskuragarri eta goiko berdegunean 15, beti ere Kirol Zerbitzuko serigrafiarekin. Erabiltzaileak arduratuko dira erabilera egokia egiteaz eta etzaulkien txokora eramateaz behin erabilia. Horretarako etzaulkiek 2 gurpil izango dituzte garraioan laguntzeko. Orokorrean erabiltzaileek ekarri eta eraman beharko dituzte egunero etzaulkiak etxetik. Berdeguneko txoko ezkutu batean soka metaliko bat eskuragarri egongo da nahi duen erabiltzaileak etzaulkia kateatuta utz dezan. Zuzendaritzak ez du izango erantzukizunik etzaulkiak izan ditzakeen kalteen ondorioz. Itzalkinak ezin izango dira erabili baldin eta zelaia zulatu behar bada. Kampin-denda itxurako itzalkinak zilegi izango dira baina zelaia zulatu gabe.

- Uda denboraldiko berdeguneko jolaserako eremuak: zerbitzu hau doakoa izango da eta ez du langilerik eskatuko. Erabiltzaileak ekarri beharko ditu jolaserako elementuak (ping-pong-eko palak eta pilota, badmintoneko erraketak eta bolantea, etab.). Aderazitako jolas eremuetatik kanpo ezin izango da bestelako jolas aktiborik egin. Neguko denboraldian berdegunea parke publiko bilakatuko da.

- Uda denboraldiko mahai eta eserlekuen zerbitzua: zerbitzu hau doakoa izango da eta ez du langilerik eskatuko. Mahai eta eserlekuen erabilera egokia egiteko kartelak egongo dira. Ezin izango da mahaiak eta eserlekuak erreserbatu 2. pertsona batentzat. Neguko denboraldian berdegunea parke publiko bilakatuko da.

- Uda denboraldiko itzalkinen zerbitzua: zerbitzu hau doakoa izango da eta ez du langilerik eskatuko. Neguko denboraldian itzalkinei banbuzko zerria kenduko zaie honda ez daitezten. Ezin izango da 2. pertsona batentzat itzalezko eremua erreserbatu. Neguko denboraldian berdegunea parke publiko bilakatuko da.

- Uda denboraldiko egongelako zerbitzua: zerbitzu hau doakoa izango da eta ez du langilerik eskatuko. Igerilekua zabalik dagoen bitartean espazio hau erabiltzaileentzat erabilgarri egongo da. Espazio honetan erabilera egokia egiteko kartelak egongo dira. Herrerara eta topagune gelara joateko atea itxita egongo da uda denboraldian. Neguko denboraldian, aldiz, beheko berdegunetik pasabidea erabilia egongelara sartzeko atea itxita egongo da.

- Uda denboraldiko berdeguneko dutxa eta iturri zerbitzua: zerbitzu hau doakoa izango da eta ez du langilerik eskatuko. Uraren erabilera egokia egiteko kartela egongo da. Neguko denboraldian dutxa itxi egingo da. Iturriek Arrasateko beste iturriek duten protokoloa jarraituko dute.

- Larrialdietarako interfonoaren zerbitzua: zerbitzu hau doakoa izango da. Soroslearen haririk gabeko telefonoarekin konektatuta egongo da. Uda denboralditik kanpo interfona ez da egongo erabilgarri eta ohar baten bitartez jakinaraziko da. Ondoan 112ko pegatina itsatsiko da.

- Elbarrien igogailua: igogailu hau uda denboraldian erabilgarri egongo da. Giltzaz funtzionatuko du eta giltza harreraren eskatu beharko da. Igogailuak elbarriari igerilekuko

zerbitzu guztiez disfrutatzen auzera emango dio. Elbarria mugikortasunean autonomia ez bada, laguntzaile bat izan beharko du.

- Berdegune ko komun publikoak: zerbitzu hau doakoa izango da eta ez du langilerik eskatuko. Espazio honen erabilera egokia egiteko kartela egongo da. Neguko denboraldian berdegunea parke publiko bilakatuko da.

Langileak (sorosleak eta kiroldegi osokoak) kolore ezberdinez sorturiko uniformeaz joango dira jantzita, ez kaleko arropaz (salbuespena bulegoko langileak, jendaurrean lan egiten ez dutenak). Langileen arteko barne-komunikazioa sustatzeko, harrerako gunean ohar-taula handia egongo da non komunikazio bertikala zein horizontalerako komunikabide erraza izango den. Zirkular orokorrak zabaltzeko eta langile bat bere urtebetetzean zorientzeko ere erabili ahal izango da. Erabiltzaileekiko komunikazioari dagokionez, benetako euskarazko jendaurreko hartu-emaña bermatuko da langileen hizkuntza eskakizunen bitartez.

Instalazioak barne-araudi garatua izango du. Autobabes-plana ezartzeaz gain, jarraipen zorrotza egingo zaio. Kiroldegiak web orria eta mugikorrerako aplikazioa eguneratuta izango ditu. Erabiltzaileentzako paperezko formatuko inprimakiak egongo diren arren, dokumentazioaren digitalizazioa joko da. Barne-dokumentazioa guztiz digitalizatuta egongo da (*Munigex...*). Sorosleen kasuan: sorospen-partekak, material eskariak, botikineko estatistikak, etab. eta dena intranet-ean egongo da Zuzendaritzaren esku. Instalazio osorako protokoloak egongo dira (lanpostu bakoitzean) eta lanpostuetako gidaliburuak (ikusitako soroslearen gidaliburuaren eredu bat erantsitako artxiboan). Horrela langile ezberdinen arteko koordinazioa lortuko da eta lanpostu batean langile berri bat sartzen denean (ordezkapena) zerbitzuaren funtzionamenduan eta kalitatean diferentziarik egon ez dadin. Honetaz gain, lanpostu guztiek kronograma batzuk izango dituzte (astekoak, hilekoak, urtekoak) langileen lana planifikatua eta eraginkorra izan dadin. Sorosleen kasuan, uneoro zaintza eskatzen duen lanpostua izanik, zenbait lan horretarako bideratutako urteko lanaldiko ordu kopuruan ordu batzuk izango dituzte lan horiek burutzeko (ikusitako artxiboan *Uretako soroslearen gidaliburu*, *Kronogramak* atala, 52. orrialdea; sorosleen kasuan zenbait lan horiek *lan administratiboa* eta *formazio eguneratua* izango lirateke).

Langile guztien lanerako ildoak aktibitate  $\longleftrightarrow$  proakzio berrelikadura eskeman oinarrituko da arlo guztietan: *marketing*-a, mantenua, begiraleen eskolak, sorosleen prebentzioa, Zuzendaritzaren politika... Lanerako eskema honen arabera zerbitzua erabiltzaileen eskarien/(kexen) aurretik joango beharko litzateke.

Instalazioa zabaldu eta hurrengo 6 hilabeteetan kontzientziazio kanpaina abiaraziko da Zuzendaritzatik jendaurrean lan egiten duten langile guztien inplikazioa eskatzen duena. Kanpaina honen helburua jendeak instalazioaren erabilera egokia egin dezan izango da, hasiera-hasieratik bizio txarrak baztertuz.

Ondorengo egutegietan igerilekuko sorosle zerbitzuaren kudeaketa islatzen da:

URTARRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

OTSAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

MARTXOA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

APIRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAIATZA						
A	M	E	E	E	Z	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA						
A	M	E	E	E	Z	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

UZTAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				







ABUZTUA						
A	M	E	E	E	Z	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

IRAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

URRIA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

-  Ordutegi arrunta: 6:20etatik 14:00etara goizez denean (irekiera baino 10 minutu lehenago argiak piztu, atak zabaldu eta "limpiafondos"-a uretatik ateratzeko). 14:00etatik 21:40etara arratsalde zenean (itxiera baino 10 minutu beranduago "limpiafondos"-a uretan sartzeko, atak itxeko eta argiak itzaltzeko). Txandakatuz SOS B soroslearekin astero.
-  Jaiegun eta asteburu etako ordutegia: 8:20etatik 13:30etara (irekiera baino 10 minutu lehenago argiak piztu, atak zabaldu eta "limpiafondos"-a uretatik ateratzeko). 16:00etatik 20:10etara (itxiera baino 10 minutu beranduago "limpiafondos"-a uretan sartzeko, atak itxeko eta argiak itzaltzeko).
-  Udako ordutegia: 8:50etatik 15:00etara goizez denean (irekiera baino 10 minutu lehenago argiak piztu, atak zabaldu eta "limpiafondos"-a uretatik ateratzeko). 15:00-21:10etara arratsalde zenean (itxiera baino 10 minutu beranduago "limpiafondos"-a uretan sartzeko, atak itxeko eta argiak itzaltzeko). Txandakatuz SOS B soroslearekin astero.
-  Jai. Oporrak abuztuan.
-  Kiroldedia itxita (urtean 5 egun).
-  Igerilekua itxita (derrigorrezko garbiketa).



URTARRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

OTSAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

MARTXOA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

APIRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAIATZA						
A	M	E	E	E	Z	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA						
A	M	E	E	E	Z	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

UZTAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				







ABUZTUA						
A	M	E	E	E	Z	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

IRAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

URRIA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

-  Ordutegi arrunta: 6:20etatik 14:00etara goizez denean (irekiera baino 10 minutu lehenago argiak piztu, atak zabaldu eta "limpiafondos"-a uretatik ateratzeko). 14:00etatik 21:40etara arratsalde zenean (itxiera baino 10 minutu beranduago "limpiafondos"-a uretan sartzeko, atak itxeko eta argiak itzaltzeko). Txandakatuz SOS A soroslearekin astero.
-  Jaiegun eta asteburu etako ordutegia: 8:20etatik 13:30etara (irekiera baino 10 minutu lehenago argiak piztu, atak zabaldu eta "limpiafondos"-a uretatik ateratzeko). 16:00etatik 20:10etara (itxiera baino 10 minutu beranduago "limpiafondos"-a uretan sartzeko, atak itxeko eta argiak itzaltzeko).
-  Udako ordutegia: 8:50etatik 15:00etara goizez denean (irekiera baino 10 minutu lehenago argiak piztu, atak zabaldu eta "limpiafondos"-a uretatik ateratzeko). 15:00-21:10etara arratsalde zenean (itxiera baino 10 minutu beranduago "limpiafondos"-a uretan sartzeko, atak itxeko eta argiak itzaltzeko). Txandakatuz SOS A soroslearekin astero.
-  Jai. Oporrak uztailan.
-  Kiroldedia itxita (urtean 5 egun).
-  Igerilekua itxita (derrigorrezko garbiketa).

URTARRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

OTSAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

MARTXOA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

APIRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAIATZA						
A	M	E	E	E	Z	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA						
A	M	E	E	E	Z	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

UZTAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				








ABUZTUA						
A	M	E	E	E	Z	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

IRAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

URRIA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

-  Jaiegun eta asteburuetako ordutegia: 8:20etatik 13:30etara (irekiera baino 10 minutu lehenago argiak piztu, atek zabaldu eta "limpiafondos"-a uretatik ateratzeko).
-  16:00etatik 20:10etara (itxiera baino 10 minutu beranduago "limpiafondos"-a uretan sartzeko, atek itxeko eta argiak itzaltzeko).
-  Udako ordutegia: 8:50etatik 15:00etara goizez denean (irekiera baino 10 minutu lehenago argiak piztu, atek zabaldu eta "limpiafondos"-a uretatik ateratzeko).
-  15:00-21:10etara arratsaldez denean (itxiera baino 10 minutu beranduago "limpiafondos"-a uretan sartzeko, atek itxeko eta argiak itzaltzeko). Txandakatuz SOS 2, ASTEBURUAK UDAN soroslearekin astero.
-  Jai. Oporrak ekainean.
-  Kiroldegia itxita (urtean 5 egun).
-  Igerilekua itxita (derrigorrezko garbiketa).



UDA

URTARRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

OTSAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

MARTXOA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

APIRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAIATZA						
A	M	E	E	E	Z	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA						
A	M	E	E	E	Z	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

UZTAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				


ABUZTUA						
A	M	E	E	E	Z	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	


IRAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						


URRIA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			


AZAROA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

 Udako ordutegia: 8:50etatik 15:00etara goizez denean (irekiera baino 10 minutu lehenago argiak piztu, atek zabaldu eta "limpiafondos"-a uretatik ateratzeko).  
15:00-21:10etara arratsaldez denean (itxiera baino 10 minutu beranduago "limpiafondos"-a uretan sartzeko, atek itxteko eta argiak itzaltzeko). Txandakatuz SOS A eta SOS B sorosleekin astero.

 Jai.

 Kiroldegia itxita (urtean 5 egun).

 Igerilekua itxita (derrigorrezko garbiketa).



UDA

URTARRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

OTSAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

MARTXOA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

APIRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAIATZA						
A	M	E	E	E	Z	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA						
A	M	E	E	E	Z	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

UZTAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

ABUZTUA						
A	M	E	E	E	Z	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

IRAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

URRIA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

- Udako ordutegia, errefortzua: 10:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 21:00etara.
- Udako ordutegia: 8:50etatik 15:00etara goizez denean (irekiera baino 10 minutu lehenago argiak piztu, atak zabaldu eta "limpiafondos"-a uretatik ateratzeko).  
15:00-21:10etara arratsaldez denean (itxiera baino 10 minutu beranduago "limpiafondos"-a uretan sartzeko, atak itxeko eta argiak itzaltzeko). Txandakatuz SOS D soroslearekin astero.
- Jai.
- Kiroldetia itxita (urtean 5 egun).
- Igerilekua itxita (derrigorrezko garbiketa).

**SOS 3, ERREFORTZUA**

(2019)



UDA

URTARRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

OTSAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

MARTXOA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

APIRILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAIATZA						
A	M	E	E	E	Z	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA						
A	M	E	E	E	Z	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

UZTAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

ABUZTUA						
A	M	E	E	E	Z	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

IRAILA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

URRIA						
A	M	E	E	E	Z	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA						
A	M	E	E	E	Z	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA						
A	M	E	E	E	Z	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					



Udako ordutegia, errefortzua: 10:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 21:00etara.



Jai.



Kiroldegia itxita (urtean 5 egun).



Igerilekua itxita (derrigorrezko garbiketa).

\* Oharra: SOS A, SOS B eta SOS D sorosleen bajak eta baimen egunak ordezkatzeko lan-poltsa egon beharko luke egun solte horiek egiteko.

## 11. ERABILTZAILERENTZAKO INFORMAZIOA

XXI. mende honetan, informazioaren gizarte honetan, argi dago kiroldegiko informazio publikoa eskura izan behar duela erabiltzaileak: ordutegia, igeriketa eskolaren mailaketa eta helburuak, igerilekuko asteko erabileraren koadrantea, instalazioaren egutegia, ekintza berezien datak, barne-araudia, autobabes-plana, etab. Paperezko formatu fisikoan izan beharko luke, instalazioan bertan, iragarki-taulan eta formatu digitalean, kiroldegiko webean eta sare sozialetan. Ikastaroetan izena ematea ere posible izan beharko litzateke internet bidez. Horrela erosotasuna izango litzateke kiroldegi berriaren oinarrietako bat.

## 12. UR-AZPIEGITUREN MAPA

Sarbideen atalean aipatu bezala, kiroldegi berriko proiektu hau borobil eta laukizuzen formetan oinarrituta dago. Sarrerako biribilgunea aipatu dugu; instalakuntzaren laukizuzen formak ere jorratu ditugu eta orain, proiektua amaitzeko, ur-azpiegituren maparekin borobilduko dugu, gizarte bateko jende-fluxuaren oreka bilatuz. Oreka hau lortzeko bizitzako ziklo naturala dago (jaio-garatu-hil; jaiotzak-heriotzak balantzea); gaur egungo beharrei eta instalakuntzaren batz besteko biziraupen denboraldian egongo diren beharrei erantzungo dien ondo dimentsionatutako instalakuntza ere dago eta, azkenik, herri jakin bat (gure kasuan Arrasate) eskualdeko mapan zer nolako hutsunea betetzen duen (gure kasuan ur-azpiegituren gaiaren inguruan) kontzeptua ere badago. Horrela oreka soziala lortuko genuke.

Igerileku berri bat eraikitzerakoan norbere “zilborra” soilik ikustearen filosofiatik at, ikuspegi zabalago batetik egin beharko litzateke hausnarketa eta beti ere jakinda azpiegitura artifisial batek (kiroldegiko igerilekua) inoiz ez dela ingurune natural batekin parekatuko: bakoitzak bere berezitasunak dauzka. Debagoienako ur-azpiegituren mapa aintzat hartu beharko litzateke norbere herriko ur-azpiegiturak zer nolako hutsunea betetzen duen ikusteko. Oro har kategoria hauek bereizten dira ur-azpiegiturak eta ur-inguruneak aztertzerakoan:


a) Estalitako igerilekuak: kategoria honetan sartzen dira Debagoienako udalerrri ezberdinetako udal igerilekuak.

b) Kanpoko igerilekua, estali gabekoa, *solarium*-arekin: gaur egun Bergarako udal kiroldegiak, Arrasateko udal kiroldegiak, Eskoriatzako udal kiroldegiak eta Arrasateko Udala auzoko *Uxarte* igerileku pribatuak eskaintzen dute aukera hau. Igerileku berri bat eraikitzerakoan oso kontutan izan behar dugu Euskal Herriko klima atlantikoa, batz besteko tenperaturak udan eta estatistikoki uda denboraldiko 3 hilabetetatik zenbat egun benetan dira aprobetxagarriak kanpoko igerilekuaz benetan disfrutatzeko, *solarium*-a barne. Hausnarketa eginda, argi dago 3 hilabetetatik batz beste 2 hilabete eskas sozialki errentagarria dela horrelako azpiegitura bat. Gauzak horrela, zentzuzkoagoa dirudi igerileku berri bat eraikitzea planteatzen denean, estalita egitea eta aukera ematea *solarium*-era irteteko. Estalduraren formula arkitektonikoa ezberdina izan daiteke: sabai erretraktila; 2 erdi-kupula itxurako sabaia zabaldu eta itxi ahal dena; eta sabai finkoa baina kristalezko gidaridun paretak izatea. Modu honetan ur-azpiegitura sozialki errentagarria izango da urte osoan zehar eta ekonomikoki ere etekin handiagoa atera ahal zaio, eguraldiaren menpe egon gabe.

d) Ur-txorroten parkea: Debagoienan Antzuola aitzindaria izan zen, udal igerilekurik ez zeukatenez, erabiltzaile perfil konkretu batzuen (familiak ume txikiekin eta 12 urtetik beherako umeak) eskaera sozialari erantzuteko (helburu ordezkatzaila). Ideia ontzat

hartu zuen Oñatik ere eta aurten Bergarak ere inauguratu du berea. Arrasateko Udalak ere kiroldegi berriko aurreproiektuan horrela ikusten du. Arrasateko ur-txorroten parkea, kiroldegiko ur-azpiegituren gehigarri edo osagarri bezala ulertu beharko genuke, Oñatik planteatu zuen bezala (helburu osagarria). Ur-txorroten parkeak erakargarritasun batzuk eskaintzen ditu eta kiroldegiko ur-azpiegiturak, beste batzuk. Kokapenari buruz, kiroldegi barruan planteatu daiteke (abonatu izatea edo sarrera ordaintzea eskatuko luke, Bergaran bezala) edo kiroldegitik kanpo egin daiteke (Oñatiren kasua). Nik azken honen ereduagatik apustu egingo nuke. Txosten honetako planoetan jasotzen den ur-txorroten korridorea 5 urtera arteko umeentzako eremu barruan ulertu behar da, ez ur-txorroten parke bat moduan. Ur-txorroten parke bat planteatzeko orduan, leku publikoa bezala ulertzen dut, doakoa, eta edozein erabiltzailerentzako bada ere, oso erakargarria da ume txikiak dituzten familientzat eta 12 urtetik beherako umeentzat, modu ludikoan freskatzeko leku bat bezala. Leku aproposa izan behar du goiza, arratsaldea edo egun osoa igarotzeko. Mahai, eserleku, zakarrontzi, iturri eta komun publiko batzuk jarrita, parkearen zerbitzua borobiltzen da. Zer esanik ez, aldamenen taberna edo kantinatxoren bat jartzen bada. Arrasatek dauzkan baliabide naturalak aztertuta, Santa Barbara parkearen azpiko aldea, Arimazubi ikastolaren ondoan kokatzen den eremua, garai batean ahateak egon ziren urmaela, izango litzateke nire ustez, lekuri aproposena ur-txorroten parkea planteatzeko. Horrela Santa Barbara parkea aisialdi gune bezala biziberrituko litzateke, parkeko tontorrean beste natur-jolas batzuekin hornituta. Santa Barbara parkearen kasuan, taberna edo kantinatxoaren zerbitzua soberan egongo litzateke inguruetan (Arimazubi plaza eta Munar kalea) zerbitzu hori baitago. Monterroneko parkea, aldiz, kultur ekitaldietarako aproposa ikusten dut, aisialdiko 2 alderdiak nahastu gabe.

### Ur-txorroten parkea



 Sarbideak



Ur-txorroten eremua



Sarbide 1



Sarbide 2



Toailak uzteko eremua





**Mahaiez, eserlekuez eta zakarrontziez  
hornitutako atsedenekua**



**Komun publikoarentzako kokaleku posible bat**



**Natur-jolasak kokatzeko 2  
leku apropos: tirolina, eskalatzeko,  
etab.**



e) Prestatu gabeko ur-ingurune naturalak: kategoria honetan kokatzen dira Albina urtegia, Oñatiko Artixa erreka putzuak eta udalerrri ezberdinetako landa-auzoetako errekatetan bainatzeko txokoak. Azken urteetan indarra hartzen ari da Urkulu urtegia bainua hartzea, nahiz eta Aizkorri-Aratz parke naturalaren barruan egonda eta hainbat espezieren babesleku izanda, debekatuta dagoen.

f) Prestatutako ur-ingurune naturalak: Debagoienan Oñatiko Usakoko presa da txoko bakarra. Bailara osoko jendea erakartzen du baina aparkalekua ez dago prestatuta. Oñatiko Udalak, arazoari irtenbidea eman nahian, aparkaleku bat inprobisatzen du urtero lursail batean. Gazteentzako aukera erakargarria bilakatu da Usako, doakoa delako eta bidegorria egonda Oñatiraino, bide segurua bilakatu baita bizikletaz joateko.

Arrasateko talde batek Arrasateko errekatetan ur-ingurune batzuk prestatzeko saiakerak egin arren, momentuz ez da gauzatu proiektua.

Badira urte batzuk Lurraldebus-eko DG-06 autobus linea antolatu zela Debagoiena eta Debako hondartza lotzeko helburuz uztailan eta abuztuan. Debagoienatik gertu geratzen den beste ur-baliabide erakargarria Landa da. Zergatik ez antolatu Lurraldebus-eko beste autobus linea bat Debagoiena eta Landa lotzeko uztailan eta abuztuan? (DG-05D linea birplanteatu, adibidez).

g) Txirristen ur-parkea (eta bestelako erakargarritasun batzuk): orain dela urte batzuk Elorrioko Udala horren aldeko apustua egin zuen “*motu proprio*”. Logikoagoa litzateke horrelako azpiegitura garesti bat modu mankomunatuan planteatzea (Durangaldea, Debabarrena eta Debagoienako eskualdeak elkaturik, adibidez), gastuak konpartitzeko eta tankera horretako ur-parkeari etekin sozial handiagoa ateratzeko, *marketing*-eko formula erakargarri ezberdinak aplikatuz 3 eskualde horietako biztanleei.

Bergarak eredu berdina aukeratu zuen bere kanpoko udal igerilekuetarako. Ondo aukeratua? Badirudi Arrasateko Udalak ere apustu berdina egin nahi duela aurreproiektuaren arabera. Gaur egun ludikotasuna sustatzeko beste eredu erakargarriagoa dago, Espainiako ur-turismoaren helmuga den Mediterraneo itsasoko korridore osoan zehar, Geronatik Cádiz-eraino: erakargarritasun ezberdinetako puzgarriak. Eredu honen abantailak:

- Ez dute espazio jakin bat betirako hipotekatzen helburu bakarrerako.
- Mantenu eskasa eskatzen du azpiegitura finkeekin alderatuz.
- Sistema modularra denez, nahi den forma har dezake puzgarrien azpiegiturak, espazio bakoitzari egokitzuz.
- Erakargarritasunak alda daitezke (sistema modularra), eskaera sozialaren arabera.
- Modu azkar eta errazean kendu eta jar daitezke uretan, obrarik egin gabe. Horregatik oso estimatuak dira putzu balioanitzak dituzten kiroldegiengatik.

### 13. PREZIOEN POLITIKA

Udal kiroldegia erabiltzerako orduan prezio herrikoiak jarri behar dira kirola herritar ororen eskubide bilaka dadin eta ez aktibitate elitista bat edo klub pribatu bat. Modalitate ezberdinak egon beharko lirateke erabiltzaile perfil ezberdinei egokitzeko: bakarka, familiarra, bonoak, hilabeteka, urte osoko abonua, etab. Hobari ezberdinak ere egon beharko lirateke: langabetuak, ikasleak, familia ugariak, elbarriak, etab. Honi lotuta, Arrasatek kirol instalazioak berritzen dituenean, Debagoienako herri handienek (Oñati, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta) kirol instalazioak guztiz berriztuta izango dituzte. Gauzak horrela, garaia izango da kirol txartel mankomunatuaren gaia berriz mahai gainean jartzeko. Denok jakina da Debagoienako herri ezberdinen herritarrek zer nolako mugimendua duten eskualdeko herrien artean, lanagatik, senideak zaintzeagatik... Kultura arloan Euskadin txartel bateratua dagoen bezala, kirol arloan Debagoienako txartel mankomunatua izatea ez litzateke bekatua izango.

### 14. TABERNA VS. EGONGELA, TOPAGUNE GELA

Udal kiroldegi batean taberna bat egon daiteke, baina auzoan nahikoa taberna daudela deritzot eta *vending*-eko makinaren zerbitzuarekin nahikoa dela iruditzen zait (harreran eta igerilekuko harmaila ondoko egongelan). Modu honetan, tabernako zerbitzua nahi dutenek (partida bateko ikusleak, ikastaroetako umeen gurasoak...) urruti joan gabe, taberna eta kafetegi ezberdinak dauzkate eskura auzoan. Horrela auzoko ekonomia ere dinamizatzen da. Udal kiroldegi baterako aproposagoa ikusten dut egongelaren zerbitzua (udako denboraldiko igerilekuko erabiltzaileak, ikastaroetako umeen gurasoak, partida bateko ikusleak). Wifi eremua izango litzateke.

Bestalde, Arrasaterako oso aproposa ikusten dut Gasteizen hain errotuta dagoen "Gizarte-etxe"-etako eredua, hots, kiroldegia, liburutegia eta topagune gela bateratzen duen elkarbizitzarako espazioa (ikusitako artxiboa). Arrasateren kasuan liburutegia (Kulturate) bananduta dago, baina bai topagune gela bat faltan botatzen dela herrian eta bailarako beste herrietan ere bai. Ideia izango litzateke Arrasateko lauak diren eremuetan hedatzea, hots, Musakolan, erdigunean eta San Andresen. Zein da topagune gelaren zerbitzua?

- Alde batetik herritarrak orokorrean (kirolarekin zerikusia ez dutenak) eguraldi eskasagatik babestuta egoteko lekua da.
- Bestetik, zerbitzu gehigarriak eskaini ditzake: Gasteizko ereduaren kasuan hemeroteca eta mahai jolasen zerbitzuak eskaintzen ditu. Halaber txiki-txoko zerbitzua ere eskaintzen du (0-6 urte bitartekoentzako ziburuak eta jolasak). Zerbitzua begirale baten zaintzapean eskaintzen da Gasteizen. Langile baten beharrarena zalantzan jar daiteke, baina bai ulertzen dela topagune gela honen filosofia eta helburuak.



## 15. AMAIERA

Ikerketa ezberdinek ondorioztatzen dute ariketa fisikoa egiteak jendearen bizi kalitatea hobetzen duela eta osasun sailarentzat ekonomikoki errentagarria dela. Nicolás Terrados doktoreak argi uzten du: “Cada euro invertido en actividad física evita hasta 15€ de gasto sanitario” (epe motzera. Iturria: “[www.elcomercio.es/aviles](http://www.elcomercio.es/aviles)”; viernes, 19 abril 2013, 03:05). Josep Maria Pons eta Mario Lloret doktoreek ere beste konparaketa egiten dute: “un euro invertido en actividad física ahorra cincuenta en sanidad” (epe luzera. Iturria: “[www.diariovasco.com](http://www.diariovasco.com)”; domingo, 22 octubre 2006; 03:28).

Baina kontuz!, kirola beti osasuna den ekuazio honek bere xehetasunak dauzka. “Pertsona bakoitzak praktikatu behar du bere ezaugarrien arabera. Onena hezkuntza on bat izatea da eta aholkularitza profesionala” dio Vicenç Gambau-ek hezkuntza fisikoko doktorea denak (Iturria: “[www.lavozdegalicia.es](http://www.lavozdegalicia.es)”; domingo, 7 de junio de 2015, 21:52).

Horregatik koordinazio bat planteatzen da Osakidetza eta Udalerri ezberdinetako kiroldegiekin, kirol errezetaren programa modu serioan aurrera atera ahal izateko (POZ programa Oñatin, adibidez). Bestetik, kiroldegiak gela balioanitz bat izan beharko luke non kirol hezkuntzan lizentziatuak direnek eta lehen mailako arretako osasun zentroetako sendagile zein erizainek kirolarekin eta osasunarekin erlazionatutako hitzaldiak eskaini beharko lituzketen erabiltzaileen jakintza maila igotzeko. Halaber, kiroldegiko sorosleek, prebentzio agente aktibo bezala, prebentzio aholkuak eta lehen sorospenetako hitzaldi eta tailer praktikoak eskaini beharko lizkiekete erabiltzaileei, hauek beraien osasunaren zaintzaile aktibo bilaka daitezten. Honekin lotuta, kiroldegiko harreran liburutegitxoak eta webteka egon daitezke erabiltzaileek gai konkretu bati buruzko (kirola edo osasunaren ingurukoa, noski) informazioa sakon dezaten.


Hau guztia izan beharko luke Arrasateko Udal Kiroldegiak: bizitzeko eta bizia jasotzeko espazio berria, herritik eta herriarentzat.

## ESKER ONAK

Eskerrak eman nahi dizkiet lan hau garatzeko beraien iritziak eman eta ekarpenak egin dizkidaten guztiei, ezinbestekoa izan baita beraien laguntza proiektu hau gauzatzeko.

 Ondorengo herrietako sorosleei:

- Oñati (Gipuzkoa).
- Bergara (Gipuzkoa).
- Aretxabaleta (Gipuzkoa).
- Eskoriatza (Gipuzkoa).
- Tamames de la Sierra (Salamanka).
- La Fuente de San Esteban (Salamanka).
- Cabrillas (Salamanka).
- Gamarra (Gasteiz, Araba).
- S.C.D.R. Anaitasuna (Iruña, Nafarroa).
- C.D. Amaya (Iruña, Nafarroa).
- Camping Angosto (Villanañe, Araba).
- Camping Acedo (Acedo, Nafarroa).
- Usako (Oñati, Gipuzkoa).
- Landa eta Garaio (Araba).
- Las fuentes del Algar (Callosa d'en Sarrià, Alikante).
- Playa de Deba (Gipuzkoa).
- Playa de Benicàssim (Kastellon).
- Playa de Cullera (Balentzia).
- Playa de Gandía (Balentzia).
- Playa de Calpe (Alikante).
- Playa de Altea (Alikante).
- Playa de Benidorm (Alikante).
- Playa de Málaga (Malaga).
- Playa del Arenal (Mallorka).


 Ondorengo segurtasun arduradunei:

- Playa de Cullera (Balentzia).
- Playa de Gandía (Balentzia).
- Playa de Benidorm (Alikante).
- *Aquarama*, Benicàssim (Kastellon).
- *Aqualand*, El Arenal (Mallorka).
- *Aquopolis*, Cullera (Balentzia).
- *Aqualandia*, Benidorm (Alikante).

 Ondorengo arduradun teknikoei:

- 112 SOS DEIAK, Txurdinaga (Bilbo, Bizkaia).
- Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko autobabeserako teknikoak, Ibilaldia eta Kilometroak ekimenetarako.
- Osasun-Garraio Urgenteko Sarean, Oinarrizko Bizi Euskarriko arduraduna eta Aurreikusteko moduko Arriskuen Ekimenen arduraduna, Emergentziak-Osakidetza.
- DYA, Gipuzkoa.
- DYA, Nafarroa.
- DYA, Extremadura.
- Gurutze Gorria, Gipuzkoa.

- Samur-Protección Civil, Madril.

 Ondorengo begiraleei:

- Biblioplaya-ko zerbitzua, Benidorm-eko hondartza (Benidorm, Alikante).
- Judimendi gizarte-etxeko topagune gela (Gasteiz, Araba).

Eta, nola ez, Arrasateko igerilekuko erabiltzaile orori. Mila esker.